

EKAIN

Ekain Euskal Herriko labar-pintura garrantzitsuenak dituen kobazuloa da. Bertan margotuta dagoen zaldien panela Europako historiaurrean aurki daitekeen errealistena da. 2008an UNESCOren Munduko Ondare Batzordeak Gizateriaren Ondare izendatu zuen.



Ekain es la cueva con pinturas rupestres más importante del País Vasco. Sus paneles de caballos han sido considerados como los más realistas de la prehistoria europea. En el año 2008 la Conferencia del Comité del Patrimonio Mundial de la UNESCO la declaró Patrimonio de la Humanidad.



Mikel Ibarguren Ekainberrin.
Arazi. 2017.



EKAIN

Argitalpenaren Zuzendaria: Juantxo Agirre-Mauleon

Edukiaren koordinazioa: Mikel Edeso. Aranzadiko Komunikazio Saila

Testuak: Juantxo Agirre-Mauleon, Jesus Altuna, Juanjo Aramburu, Aitziber Gorrotxategi, Mikel Edeso, Blanca Ochoa, Daniel Ruiz, Miguel Zugaza.

Artxibo lanak: Anais Rodriguez, Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxiboa.

Edukiaren Zuzentzailea: Karlos Almorza.

Maketazioak: Tamtam S.L.

Azaleko irudia: Ekaingo margoen jatorrizko kalkoen irudiak. Jose Miguel de Barandiaran eta Jesus Altuna. 1969. AZEA, Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxiboa. Arazik moldatua.

Inprimategia: Leitzaran Grafikak S.L.

Itzulpena: Saretik Hizkuntza Zerbitzuak S.L.

Aranzadi Bilduma 04

ISBN 978-84-17713-11-9

ISSN 2255-0437

L.G. / D.L. SS 632-2019



Zorroagaina 11

20014 Donostia - San Sebastián

Tel.: 943 466142 • Fax: 943 455811

e-mail: idazkaritza@aranzadi.eus

www.aranzadi.eus

Eskerrak

Antxieta Arkeologia Taldea, Balneario de Cestona, Barandiaran Fundazioa, Bilboko Arte Ederren Museoa, El Diario Vasco, Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritza, Jesus Mari Lazkano, Jose Luis Ibisate, Sastarrain Baserri Eskola, Azpeitiko Udala.

EKAIN

Historiaurreko zaldien magia
La magia de los caballos de la Prehistoria

Deba
2019

Ekain berri



Gipuzkoako
Foru Aldandia
Kultura, Turismo, Gazteritza
eta Kirol Departamenturik



GORAIN
KULTURA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

STM
San Telmo Museoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura



DEBAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE DEBA



ZESTOAKO UDALA

EKAIN
ARKEOLUAK

arazi
ideiak
borobiltzen



Antzieta Arkeologi Taldea

GORDA ILUA

Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa
Centro de Colecciones Patrimoniales de Gipuzkoa

AURKIBIDEA

or.

00 Aurkezpena: Historiaurreko zaldien magia	08
01 Sastarrain bailara	12
02 Aurkikuntza.....	22
03 Indusketa arkeologikoak eta haien emaitzak	30
04 Suharriak eta eguneroko bizitza	52
05 Margoak eta kobazuloa.....	76
06 Labar-arte eta haren testuingurua	106
07 Ekainberri.....	120
EKAIN. Versión en castellano	139
Bibliografia	197

O

Aurkezpena

“La manifestación tiene lugar desde el Espíritu. No tiene lugar desde la forma, desde el mundo físico. Debes saber que ocurrirá lo que quieras manifestar.”

Pablo Picasso 1881-1973






Laveuses à Arles. Paul Gauguin. 1888. Bilboko Arte Ederren Museoa.

Miguel Zugaza Miranda

Bilboko Arte Ederren Museoaren Zuzendaria

Inork ez daki noiz eta zergatik sortu zen artea, baina esanguratsua da gaur egun ezagutzen ditugun mundua adierazteko modu primitiboek ahaztuta milaka urte eman ostean izaki garaikideak aurkitu izana. Gure inguruneko historiaurreko beste hainbat aztarnategirekin gertatu zen moduan, Ekain XX. mendearen bigarren erdialdean aurkitu zuten. Ekain duela 50 urte ezagutu zuten; zehatzago esanda, 1969an. Bitxia da jakitea marrazkiak gordetzen dituzten galeria zoragarri horiek Frantziako maiatza edo 1969ko maiatza gertatu eta urtebetera arkitu zituztela. Zulo horietan Madeleine aldiaren egindako zaldien, bisonteen eta hartzen taldeak (70 arte) daude gordeta. Baina badago beste datu adierazgarri bat ere: Aranzadi Elkarteko Joxe Migel Barandiaran eta Jesus Altuna arkeologo bikainek duela 50 urte kobazuloaren ikerketa zientifikoari ekin ziotenean, Jorge *Oteizaren Quosque* tándem lanak urte batzuk zera-matzan argitaratuta.

Urte haietan, artea edozein arau akademiko edo figuratibotan finkatuta egotetik askatu zen eta arte abstraktuaren joerek Atlantikoaren ertz batean eta bestean hedapen handiena lortu zuten. Arte figuratiboak hutsetik hasteko izan zuen modu hartatik errealismoaren santutegi berri bat sortu zen oharkabea eta artearen formen jatorriara eramaten gaitu horrek. Gutxi gorabehera gure aroa baino 12.000 urte lehenago sortu zen errealismo liluragarri eta ustekabekoa da, generoari edo kopuruari dagokienez identifikatzeko gai ez garen egile batzuen lana. Kobazuloaren barrualdean irudi haiek pintatu edo grabatu zituenak ez zuen oraindik adierazten ari zen natura horrekiko ezberdina zen zerbaitetako kide izatearen usterik eta, bistakoa denez, are gutxiago marra batean irudikatu aurretik bere irudimenetik ateratzen ari zen hura, Greziaren garaitik, artea dela uste dugunik.



Ekaingo aurkikuntza egin zeneko 50. urteurrena omentzeko libururako hitzaurre labur hau idazten ari naizen honetan, oraindik ere Bilboko Arte Ederren Museoko alfabetoko A (artea) aretoan ikusgai dago aztarnategi hartan Aranzadi Elkarteko aita Pablo Aresoren pazientziari esker topatutako plaketa. Gainazalean, animalien irudi batzuk ditu grabatuta. Zertxobait moztuta dauden lerroen nahaste-borrastea dirudi; gure begiek lehen begiratuan hautemateko zailak dira, baina zirujau baten doitasunarekin, animalien hainbat buru bata bestearen gainean jarrita irudikatzen dituzte (ahuntza, elur-oreina, oreina...). Objektu zoragarri hori Paul Gauguin-ek bere lagun Vincent van Gogh-ekin batera 1888an pintatu zuen *Latsariak Arlesen* koadroaren alboan dago ikusgai. Seguru asko, horixe izango da museoko lan entzutetsuenetako bat eta albo batean ikus daiteke 12.000 edo 14.000 urte lehenago Ekaingo plaketan erreialismo harrigarriarekin marraztu zutenaren oso antzekoa den ahuntz baten profila. Bien artean kointzidentzia tematikoa dagoen arren, Frantziako pintorearen koadroan berehala ikus dezakegu arte arloko maisulana dela; aldiz, historiaurreko kobazuloko geruza bateko baheketan topatutako harrizko pusketari oraindik ere arkeologia deitzen diogu edo, beste nolabait esanda, lehenengoaren kasuan haren balio estetikoa hauteman dezakegu eta bigarrenaren kasuan, aldiz, bere antzinatasuna bakarrik. Gaur arte.

Arraseko argiarekin kontaktuan dagoenean bizitza propioa lortzen dutela diruditen lerroen laino zoragarri hori museoan ikusteko aukera izan dugunok beti izango dugu gogoan artearen aurretik artea izan zela. Eta, noiz eta zergatik sortu zen ez dakigun arren, gure garaikidetasunaren sakon-sakonean gu hunkitzeko gai izan zen, beste behin, Francisco Calvo Serraller gure maisuak esaten zuen moduan, honetan pentsatzera behartzen gaitu: “artea aldatu egiten da, baina ez du aurrera egiten”.

01

Sastarrain bailara

“En las proximidades de Cestona se encuentran sitios y paisajes agradables. Entre ellos recuerdo una hondonada del monte Aguiró, la perspectiva del Izarraitz y el camino a Lastur... Por donde se podía ir por un sendero primero a Iciar y luego a Deva, se pasaba por un barranco en forma de embudo, cuyo fondo se llenaba de agua y, en primavera, sobre el agua caían infinidad de hojas que lo cubrían casi completamente. A mí me parecía aquel sitio un lugar misterioso para ondinas o para silfos.”

Pío Baroja 1953





AZEA Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxiboa.

Sastarrain bailara

Ekaingo leizea izen bereko muinoaren ekialdeko mendi-hegalean dago, Sastarrain ubideak sortutako haran txikian, Deba udalerrri barruan. Urola ibaiaren arro hidrografikoaren barruan dago. Aizkorri mendizerran sortu eta 59 kilometroko ibilbidea egin ostean (tartean, besteak beste, Legazpi, Urretxu, Azpeitia eta Zestoa udalerrriak zeharkatzen ditu), kostaldeko Zumaia udalerrian isurtzen ditu urak.

Ingurunea Euskal Herriko isuralde atlantikoko paisaia tipikoak osatzen du: ur-lasterren inguruko haltzadiak, pago eta haritzen arboladiak, Insignis pinuaren monolaboreak eta artadiak kareharrizko substratua gainazalera ateratzen den mendi-hegaletan. Horrez gain, larre-eremuak eta landatutako soro gutxi batzuk ere badaude.

Sastarrain ubideak Urola ibaian isurtzen ditu urak, Zestoa hiribilduko erdigunean. Hain zuzen ere, Zestoa Ekaingo leizetik 1 kilometrora dago. Inguruari dagokionez, bere altuera dela eta nabarmendu beharrekoa da Erlo mendiaren tontorra (1.030 m). Alboan altuera ertaineko mendien gailur-lerroa du: Agirao (739 m), Saltsamendi (590 m), Andutz (613 m) eta Endoia (429 m), adibidez. Gehienek mendi-hegal oso malkartsuak dituzte, batzuetan baita gorabehera handikoak ere. Kareharria azaleratzen da, eta Ekain inguruan haran estua eratu.

Ekain inguruko haraneko baliabide naturalen aprobeixamendu historikoa, batez ere, abeltzaintzarekin eta basoen ustiapenarekin lotuta egon da eta, neurri txikiagoan bada ere, nekazaritzarekin. Erdi Arotik, Lili leinuak kontrolatzen zuen eremua eta

haien leinu-etxea da XVI. mendearen hasierako jauregien arkitekturaren testigantza esanguratsuenetako bat. Mende askoan, Sastarrain ubideko ibilguak burdinolen eta errota hidraulikoen makinak mugitzeko erabili zituzten. Gaur egun oraindik ikus daitezke haien aztarnak eta kareharrizko harlanduzko lanarekin egindako presa ikusgarri bat. Azkenean, XIX. eta XX. mendeetan, bertako iturburuen propietate mineromedizinalak zirela eta, herrialdeko bainuetxe garrantzitsuenetako bat eraiki zuten Zestoan.



Lili jauregia. 1930. Indalecio Ojanguren.
AGG_GAO- DA03076.

Sastarrain haranean ateratako airetiko argazkia. Ekaingo leizea itsas mailarekiko 90 metroko altitudetan dago, gaur egungo kostalerratik 8 km-ra.

ZESTOATIK DISTANTZIAK

Donostia: 34,1 km

Bilbao: 76,5 km


Gasteiz: 76,3 km

Iruña: 103,1 km

Baiona: 89,3 km




Jose Miguel de Barandiaran. 1972. Fundazioa. Euskadiko Artxibo Historikoa. Eusko Jaurlaritza. L: 66, nº. 1.





20

Bertako kondaira batek dioenez, 1760. urtean, San Millango markesaren txakur batzuek hazteria zuten. Aialeku mendiko iturburuetatik zetozen ur beroko putzu batzuetan bainua hartu ostean, sendatu egin omen ziren. Iturburu haietako uraren propietate mineromedizinalak onura publikoko izendatu zituzten 1792. urtean eta San Millango markesak lehen bainuetxea ireki zuen 1804. urtean. Huraxe izan zen, hain zuzen ere, Zestoako bainuetxegunearen jatorria. Bitxikeria gisa, 1889. urtean, ur minerala zuten 87.000 botila saldu zituztela aipa dezakegu. 1893an eraiki zuten gaur egun aktibo jarraitzen duen eta ur termalen zerbitzuak eskaintzen dituen “Zestoako Gran Hotel Bainuetxea”.



Zestoako Zubimusu. Indalecio Ojanguren.
1942. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra.

AGUAS Y BALNEARIO DE CESTONA
 GUVIPVZCOA (ESPAÑA)

AGUAS CLORURADO - SODICAS - SULFATADAS
 TERMALES

EL CARLSBAD DE ESPAÑA
 DECLARADAS DE UTILIDAD PUBLICA EL AÑO 1792

HOTEL DEL BALNEARIO

UNICAS INDICADAS
 PARA LAS ENFERMEDADES DEL
 HIGADO, BAZO, INTESTINOS
 ESTREMIENTO, ETC.

02

Aurkikuntza

“- Andoni hemen zulo bat ziok! Zer egingo diagu?”

- Aurrera. Zer egingo diagu ba!”

Andoni Albizuri, Rafael Rezabal. 1969





Ekain. Jesus Mari Lazkano. 1996.

Andoni Albizuri eta Rafael Rezabalek 1968ko ekainaren 8an aurkitu zituzten lehen labar-pinturak. Zirrarez betetako uneak izan ziren haiek: Ekain jaio zen, Europako kultur ondarerako eta historiaurrerako mugarria.

Aurkikuntza egin zuten unean, Gipuzkoak hilabeteak zeramatzan salbuespen-egoeran eta diktadura frankistaren aurkako erresistentzia kultureko eta politikoko mugimenduak Euskal Herriko hainbat udalerritan zabaldu ziren. Ekaingo kobazulotik hamar kilometrora dagoen Azpeitia herrian, Antxieta kultur taldea zen urte haietan euskara eta euskal kultura defendatzeko eta bultzatzeko jarduerak dinamizatzen zituen eragile nagusia. Testuinguru haren baitan, gertuen zuen ingurune geografikoko ingurune fisikoa ikertzeko saiakera bultzatu zuen, eta batez ere historiaurreko aztarnak izan zitzaketen zuloena. Herrialdearen antzinako iragana ikertzea eta aztarna arkeologikoak aurkitzea izan zen taldearen nortasun-ezaugarrietako bat. Berrogeita hamar urtez mantendu ditu jarduera horiek. Antxieta taldeak egindako ikerketa haietan aurkitu zuten Ekaingo leizea eta berehala eman zioten horren berri Aranzadi Zientzia Elkarteko historiaurreko sailari. Taldearen sorreratik egiten dute elkarte zientifiko horrekin batera lan eta, orduetik, kobazuloko ikerketa arkeologikoa egiteaz eta hura zaintzeaz arduratu zen elkarte.



Rafael Rezabal eta Andoni Albizuri.
Ekaingo kobazuloaren sarbidean,
1969. Antxieta Arkeologia Taldea.





Rafael Rezabal eta Andoni Albizuri Azkoitiko Munibe Taldeko kide batzuekin, besteak beste Mikel Sasieta plano bat begiratzen. Ekain, 1969. Antxieta Arkeologia Taldea.

Une haiek oroitzeko, Rafael Rezabalen, aurkitzaileetako baten, eta Jesus Altuna historiaurrelariaren testigantzak ditugu.

Ekainaren 8an, igandean, Andoni Albizuri eta Rafael Rezabal Azpeititik atera ziren Izarraitz mendigunean prospekzioko ibilbidea egiteko asmoz. Goltzibar arroilatik jaitsi eta Sastarrain haraneraino iritsi ziren. Han, ubide ondoan zegoen baserriko andeari, Cristina Mendizabali, han inguruan zulorik ba ote zen galdetu zioten. Emakumeak Ekaingo muinoko bazterrak aipatu zizkien, zulo bat bazela eta.

IMPORTANTE CUEVA PREHISTORICA EN LA LADERA DEL IZARRAITZ

Nuestro corresponsal interino en Ascotia, señor Berris-tain, nos envía una noticia que hace referencia al hallazgo de unas cuevas prehistóricas en la ladera del monte Izarraitz; cuevas que por sus pinturas rupestres parecen tener en importancia a las de Santamamite y alcanzar casi a las de Altamira.

De la importancia de Barandiarán, ayer, [redacted] estuvieron examinando dichas cuevas. Altuna [redacted] estuvieron examinando dichas cuevas, junto con los dos anónimos descubridores.

La noticia, como comprenderá el lector, tiene importancia en sí, pero desde el punto de vista general es nimia. La importancia para todos los guipuzcoanos; da igual que las cuevas se hayan descubierto aquí que en Tíralas.

SE CREE QUE TIENE UN VALOR PARECIDO A LA DE ALTAMIRA

CONFIRMADA LA IMPORTANCIA DEL HALLAZGO DE UNA CUEVA CON PINTURAS PREHISTORICAS EN EKAIN (CESTONA)

GUPIZCOA, nuestra ciudad

Importantes cuevas con pinturas rupestres descubiertas en el corazón de Guipúzcoa

"Doy gracias a Dios porque, de los 80 años, me ha permitido ver estas cosas" (Barandiarán)



La estación de la segunda estrotopoia del Grupo Anónimo de Ascotia, los periodistas escandinavos, investigando en el interior de la cueva de Izarraitz, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.



Los tres de la izquierda los responsables de fotografías fotográficas en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

Una importante noticia para los guipuzcoanos, que se descubren en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

El grupo de cuevas prehistóricas descubiertas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

La noticia al mundo

El hallazgo de este tipo de cuevas prehistóricas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

El hallazgo de este tipo de cuevas prehistóricas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.



Grupo de cuatro cuevas que se halla pintado en la sala "Zaldaga" de la cueva recientemente descubierta por Altuna y Barandiarán. En el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

El famoso antropólogo catalán, Claudio, examinó más de veintidós dibujos de caballos, dos a tres de mesa y algunos de bi-céfalos, que se descubrieron en la cueva de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

El hallazgo de este tipo de cuevas prehistóricas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.



Investigaciones rupestres en las cuevas pintadas

El hallazgo de este tipo de cuevas prehistóricas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

El hallazgo de este tipo de cuevas prehistóricas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.



Grupo de cuatro cuevas que se halla pintado en la sala "Zaldaga" de la cueva recientemente descubierta por Altuna y Barandiarán. En el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

El hallazgo de este tipo de cuevas prehistóricas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

El hallazgo de este tipo de cuevas prehistóricas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

El hallazgo de este tipo de cuevas prehistóricas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

El hallazgo de este tipo de cuevas prehistóricas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

Reportaje

JAVIER DE ARAMBURU
Fotografía:
PEPE GIL
Grabado:
MANOLO MADRAZO

El hallazgo de este tipo de cuevas prehistóricas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

El hallazgo de este tipo de cuevas prehistóricas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

El hallazgo de este tipo de cuevas prehistóricas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

El hallazgo de este tipo de cuevas prehistóricas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

El hallazgo de este tipo de cuevas prehistóricas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

El hallazgo de este tipo de cuevas prehistóricas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.



El grupo de cuevas prehistóricas descubiertas en el corazón de Guipúzcoa, en el monte de Ascotia, de Ibañeta, y Javier de Aramburu, de Ascotia, en el momento de descubrir el grupo de cuevas prehistóricas.

Rafael Rezabal, Andoni Albizuri, Joxe Migel Barandiarán eta Jesus Altuna Sastarrain baserriaren inguruan, 1969. Antxieta Arkeologia Taldea.

Eremua miatu eta aipatutako zuloa topatu ez zutenez, berriro itzuli ziren Sastarrain baserrira. Kasu hartan, ordea, Julian Larrañagak kobazuloaren sarreraraino eram zituen. Han hasi ziren leizea ikertzen eta barnealdea ikuskatu ondoren, ukabila justu-justu sartzen zen zulo batean jarri zuten arreta. Hala, zuloa handitzeko asmoz, harriak kentzen eta lurra induskatzen hasi ziren. Berehala jabetu ziren barnealdetik aire hotza ateratzen zela. Haren atzean zulo handiagoren bat egongo zen seinale zen hura.

- *“Andoni hemen zulo bat zio! Zer egingo diagu?”*

- *“Aurrera!. Zer egingo diagu ba!”*.

Rafaelek gorpuzkera txikiagoa zuen eta zulotik sartu eta gutxi gorabehera 20 metroan herrestan joan zen lurzoru karstikoa ukitu zuen tokiraino; estalaktitak zeuden eta uraren hotsa entzun zezakeen. Toki zabala zen eta hainbat galeriaren abiapuntua zirudien. Guztia ikuskatzen hasi ziren.

- *“Halako batean, ezkerrera begiratu nuen eta zaldi pila hura ikusi nuen. Oihu ikaragarria bota nion eta Andonik pentsatu omen zuen: Han, erori duk!. Ez nintzen erori, baina ia-ia atzeraka. Hura poza!. Gero zaldi gehiago ikusi genituen, bisonteak, hartzak, eta zaldi gehiago. Emozioak gain hartuta, ezin izan genuen barruan gehiago egon”*.

Andoni Albizuri eta Luziano
Ansoalde lurra induskatzen.
Antxieta Arkeologia Taldea.



03

Indusketa arkeologikoak eta haien emaitzak

“Se ve que las apetencias del hombre paleolítico a la hora de cazar y los intereses que tenía a la hora de figurar los animales que conocía no tienen correspondencia.”

Jesus Altuna. 1997





Ekaingo kobazuloan egindako indusketa, 1970. hamarkada.
AZEA Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxiboa.

Jesus Altuna

Jakiunde. Zientzia, Arte eta Letren Akademia

“1969. urte honetako ekainaren 8an Antxieta kultur elkarteko bi gazte azpeitiar, Andoni Albizuri eta Rafael Rezabal, Ekaingo haitzulora joan ziren eta, aurrera egiteko ahalegin handien ostean, ordura arte itxita eta kontuan hartu gabe egon zen atondoaren eskuinaldeko zulo estua zeharkatu eta zulogune haietan barna sartzea eta, lurrean arrastaka, galeria sakonetara heltzea lortu zuten. Han ikusi zituzten haitzuloa apaintzen duten irudiak”.

Horiek izan ziren J.M. Barandiaranek eta nik Ekaini buruz idatzitako lehenengo argitalpen zientifikoko (1969) lehenengo lerroak. Beste asko izan dira haren atzetik, hemen nahiz kanpoan, 50 urteotan zehar. Bederatzi urte beranduago Ekaingo santutegiari buruzko beste monografia bat argitaratu genuen (Altuna eta Apellaniz, 1978) eta 2008an aurkikuntza berriak (Altuna eta Mariezkurrena, 2008a).

Aurkitzaileek aurkikuntzaren berri eman eta bi egunera, Ataungo bere etxean jaso nuen Barandiaran eta Ekainera abiatu ginen nire Seat 600 txikian, eta labar-irudien benetakotasuna baieztatu genuen. Orduko akta Koro Mariezkurrenak idatzi zuen eskuz (Mariezkurrena, 2005-2006).

Milurteko askoan ez zen inor sartu mehargune haietan barna, geroxeago, indusketari buruz hitz egitean, ikusiko dugun moduan. Horregatik dago hain bikain kontserbatuta.

Ondare hain eder eta, aldi berean, hain hauskor hori babestea izan zen gure lehenengo ardura. Horregatik, haitzulora ikustaldia egin eta bi egunera burdinazko ate batek babesten zituen irudiak. Orduan eman zitzaion prentsari aurkikuntzaren berri (1. irudia).



Berehala hasi ziren haitzuloa publikoari irekitzeko asmoak, bertako, probintziako nahiz estatuko agintarien aldetik. Baina urte haietarako jakina zen zenbat hondatzen ziren labarretako artea zuten haitzuloak turisten bisita ugariengatik. Paleolitoko labar-arteak, milurtekotan zehar haitzuloen bakartasunean iraun duena eta, horrexegatik, denboraren iraganaren aurrean oso iraunkorra irudi lezakeena, oso hauskorra da alabaina. Azkenaldian, besteak beste, Lascaux, Altamira eta Santimamiñeko saildutegi paleolitikoek jasandako kalteek nahikoa eta gehiegi frogatu dute hori. Horregatik gure seta, haitzuloa turismoari itxita mantentzeko eta ikustaldien kontrol zorrotza programatzeko.



1. irudia. Andoni Albizuri eta Rafael Rezabal haitzuloko sarreraren aurrean, babeserako hesia jarri berritan.

Baina haitzulo horiek zekartzaten etekin handiak ere ezagunak ziren. Hori dela eta agintarien ahalegina, turismoari atea irekitzeko. Garai hartako Gipuzkoako prentsak zioen *“guk kultura giltzapean geneukala”*.

Ondo kostata lortu genuen haitzuloa itxita mantentzea saildutegian eta sarrerako aztarnategian ikerketak egiten genituen bitartean. Indusketen lehenengo zikloaren amaieran, 1975ean, are nabarmenagoa zen Altamiraren hondatzea eta gure jarrerari eustea errazagoa izan zen. Aztarnategitik hurbil zegoen harrobiaren jarduera ixtea ere lortu genuen, bibrazioak eragiten baitzituen.

Hala ere, urteen joanean, 80ko hamarkadaren erdialdean, Lascauxen lehenengo erreplika ireki berritan, Ekainek funtzio soziala ere izan behar zuela jabetu ginen (Al-tuna y Mariezkurrena, 2008b). Horrela, antzeko erreplika bat egitea proposatu genion



Zestoako Udalari. Lortu bagenuen, batik bat, hasiera batean, 1999 eta 2001 artean, J. J. Ibarretxe lehendakariak eta M. C. Garmendia Kultura sailburuak emandako uste osoko laguntza irmoari esker eta, 2003 eta 2007 artean, J. J. González de Txabarri Gipuzkoako ahaldun nagusiak emandako ezinbesteko eta behin betiko laguntzari esker izan zen. 2008an inauguratu genuen erreplika hori, aipatu lehendakaria bertan zela eta hango zuzendari zientifiko nik neuk jardun nuela.

1994an, G. Bosinskik, Coloniako Unibertsitateko irakasle eta Neuwied-eko Historiaurreko Institutuko zuzendariak, Ekain eta Altxerri haitzuloei buruzko lan bat eskatu zion lerro hauen egileari. Lan hori 1996an Alemanian argitaratu zen (Altuna, 1996) eta frantsesera eta geroago, 1997an, gaztelaniara itzuli zuten. Horrela, bi haitzuloek zabalkunde handia jaso zuten Europan eta, 2008an, UNESCOk Gizadiaren Ondare izendatu zituen, Kantauri itsasertzeko beste batzuekin batera.

Indusketa arkeologikoak

Irudiak aztertu ondoren aztarnategia industen hasi ginen. Barruan labar-arteko saildutegia duen haitzulo bat induskatzeko arreta berezia jarri behar da, saildutegi hori hobeto irudikatzen eta ulertzen lagunduko duten datuak ikertu behar baitira. Horrela, haitzuloaren gune sakonera sartzeko pasabide luzean egindako indusketan ikusi zen, haren gainazala gutxi gorabehera posizio berean mantendu zela, barrualdea margotu zutenetik irudien multzoa aurkitu zuten arte igarotako tartean. Ehizatutako animalien multzoa eta irudikatutakoena alderatzea ere garrantzitsua da, beste gauza batzuen artean (Altuna, 1983).

Ekain haitzulo txiki bat baino ez zen, labar-arteko irudietara daramaten galeria berriak aurkitu ziren arte. Haitzulo txiki horren sarrera 2,30 m zabal eta 1,20 m garai zen.

Sarrera horren ostean 2 x 3 metroko atondoa zegoen (2. irudia). Sartzean ezkerrera, zaku-hondoan amaitzen den galeria txiki bat dago, eta 13 m luze eta ia 2 m zabal ditu. Saindutegia aurkitu aurretik haitzuloaren zati hori ezagutzen zen soilik. Aztarnategi arkeologikoa atondora eta galeria txiki horretara mugatzen da soil-soilik. Bizitoki minimo bat, hain multzo artistiko bikainerako.


Aipatu atondoaren eskuinera pasabide txiki bat zegoen, tamaina txikiko abereak bertatik sar ez zitezen 7 harri-blokez itxita. Bloke horiek kenduta sartu ahal izan zuten Andonik eta Rafaelek, zailtasun handiz, barruko galeria sakonetara.

Ekaingo haitzuloko indusketa arkeologikoak hiru fasetan egin ziren. Lehena 1969 eta 1972 artean izan zen, eta J. M. Barandiaranek zuzendu zuen.

Bigarrena, 1973 eta 1975 artekoa, J. Altunak zuzendu zuen.

Hirugarrena ere, 2008 eta 2011 artekoa, J. Altunak zuzendu zuen.

Lehenengo fasean, haitzuloaren sarreraren aurrean, sarreran bertan eta santutegira sartzeko galerian egin genuen indusketa lehendabizi




2. irudia. Ekaingo lehenengo indusketen oinplanoa. 1, Marradura bakuneko eremua, lehenengo bi ekinaldietan induskatua. 2, 3 eta 4, bertako haitza. 5, barruko sarbide/pasabidea itxen zuten blokeak, tamaina txikiko abereak sar ez zitezen jarritakoak. 6, 3. ekinalditik 6.era arteko indusketa-eremua.

(Barandiaran eta Altuna, 1977). Horrela, hara sartzea erosoagoa izango zen, herrestan ibili beharrik gabe. Barrurako sarbide horretako indusketan ez zen inolako aztarnategi arkeologikorik agertu, paleontologikoa soil-soilik: gaur egungo gainazaletik 10 cm ingurura haitzuloetako hartzaren aztarna asko hasi ziren azaltzen.

Gerora ikusi genuen, indusketaren bigarren fasean, hartzen aztarna horiek sarrerako eta haren ezkerreko salako aztarnategian agertzen zirela, Madeleine aldiko mailen azpian, gaur egungo gainazaletik 250 cm-ko sakonerara. Hau da, sarreran eta ezkerreko aretoan 250 cm-ko jalkina metatu bazen ere, santutegira sartzeko galeria estuan 10 cm baino ez ziren metatu. Beraz, barruko irudien egileek herrestan sartu behar zuten, 12.000 urte geroago lan horien aurkitzaileek eta irudien aztertzaileok egin genuen moduan.

Azkenik, hirugarren fasea antolatu genuen, arazo batzuk eta aurreko faseetan geratutako hutsuneak argitzeko eta fotogrametria-teknikak erabiltzeko. J. Wesbuerrek aplikatu zituen teknika horiek, indusketako azal guztien hiru dimentsioko irudiak egiteko (3. irudia).




3. irudia. II. mailaren oinarria (J. Wesbuer-en fotogrametriaren arabera).

Azarnategiaren estratigrafia

Indusketan honoko estratigrafia agertu zitzaigun (4. irudia):

- I. maila, azalekoa, modernoa, 3-4 cm-ko lodierakoa, materia organiko eta kareharritzko harkosko asko dituen. Ez dauka ez industriarik, ez faunarik.
- II. maila, duela 9.540 ± 210 urteko Mesolitoko datazioa duena; bitxia bada ere, zeramikazko aztarna bat eman zuen eta, animalia basatien aztarnen artean, abereen aztarna gutxi batzuk ere bai. 2008-2011 arteko indusketan ikusi genuen, indusitako gune berrian, 5 urteko ume baten Neolitoko ehorzketa bat, 4.960 ± 60 BP-ko datazioa eman zuena eta lehenengo fasean erregistratu ez genuena. Hari dagozkio 1. fasean aurkitutako zeramika-zatia eta abereen aztarnak.

- Azil aldiko hiru maila (III.etik V.era), baldintza klimatiko onetan metatutakoak; oreina da ugariena eta orkatza eta basurdea ere agertzen dira, baso hostoerorkorretako ohiko animaliak. Gauza bera ikusi zen palinologiaren bidez.



4. irudia. Goiko mailen estratigrafia.

- Goi eta Azken Madeleine aldiari dagokion VI. maila, 12.000 eta 12.700 urteen artean datatua. Azken glaziazioaren azken faseari dagokion maila da; elur-oreina eta erbi artikoaren aztarnak ere agertzen dira. Ehizan espezializazioa zegoela erakusten du harrizko industriak; izan ere, gutxi dira etxeko erabilerarako tresnak eta asko ehizarako erabilitako bizkardun ijekitxoak eta puntak. Multzoa txiroa bada ere, hezurrezko industrian hainbat arrankazi zilindriko agertu ziren. Basahuntza-
ren ehiza da nagusi. Izokina ere agertzen da. Santutegian ere irudikatua dago. Maila honen goiko aldean ohiz kanpoko ale bat agertu zen: grabatuak zituen hareharrizko plaketa bat. Geroago hitz egingo dugu hari buruz, “Ekaingo arte higigarria” atalean. Santutegiko margoak maila horretako biztanleenak direla uste dugu.
- Maila horren azpian, Behe Madeleine aldiari dagokion beste bat (VII.a) agertu zen; klima hotzekoa zen hura ere, eta duela 15.400 eta 16.500 urteen artean datatutakoa. Ehizan espezializazioa zegoela erakusten du harrizko industriak. Orein emeetara eta haien kumeetara erabat espezializatua zegoen. Ekain urtaroko aztarnategia zen garai hartan. Udaberri amaieran eta uda hasieran joaten ziren bertara, orein emeak taldetik banandu eta erditzeko leku babestu batera joaten zirenean. Erditu ondoren, 3 eta 5 egun artean egiten dituzte toki berean, orein-taldera berriz batu aurretik. Une horretan ezustean harrapatzen zituzten Ekaingo ehiztariek. Hori erakusten dute indusketan agertutako higadurarik gabeko esneko hortz ugariek (5. irudia) eta helduen hezurren fintasunak, ale emeenak dudarik gabe.
- Madeleine aldiko bi mailen artean, 2008-2011ko indusketan beste maila bat, oso mehea, atzeman genuen, 13.660 eta 13.900 urte artean datatua, Erdi Madeleine aldiari dagokiona, eta arte higikorreko beste ale ikusgarri bat eman zuena. Hari buruz ere geroago hitz egingo dugu.

- Maila horren azpian zati antzu handi bat dago (VIII.a), eta azpian beste bi (IX.a eta X.a) haitzuloetako hartzaren aztarna askorekin. X. mailan Chatelperron motako elementuren bat agertu zen. Datazioak “30.000 urtetik gorako” (sic) data eman zuen.



5. irudia. Hiru hilabetetik beherako oreinkumeen esneko hortzak. Bizitzako lehenengo uda.

- Azkenik, beste bi maila antzu daude (XI.a eta XII.a) eta haien azpian bertako haitza. Giza bizitokiaren zati emankorrak 2,20 m-ko potentzia dauka.

Bestalde, Ekain urtaroko aztarnategia izateak –batez ere, Behe Madeleine aldiari dagokion mailan eta beharbada baita Goikoan ere–, bailara ikuskatzera bultzatu gintuen, haren eta inguruko beste aztarnategien arteko distantziak ikusiz, Ekaingo ehiztariak haietakoren batetik ote zetozen aztertzeke. Hurbil, oinez hiru ordutik beherako bidean, Urtiaga, Erralla eta Amalda daude. Barandiaranek aurrez induskatua zuen Urtiaga, eta guk Errallako eta Amaldako indusketei ekin genien 1977 eta 1985 artean eta, haien arteko erlazioak ikusi ahal izateko, arkeologia espazialaren ikuspuntutik aztertu genituen, (Altuna, 1982).

Lehenengo bi indusketa-faseen ostean, nazioarteko talde bat bildu eta zuzendu genuen, haietan bildutako material guztiak diziplinarteko tratamenduarekin aztertzeko. Lau urte geroago argitaratu genituen emaitzak (Altuna eta Merino, 1984). Hura izan zen Euskal Herriko aztarnategi arkeologiko baten indusketaren diziplinarteko lehenengo argitalpena.

Indusketa horietan aurkitutako bi alek Europako arte higigarri osoarentzat duten garrantzia dela eta, haiei buruz luzatuko naiz jarraian.

Ekaingo arte higigarria

1. VI. mailako plaketa

Hareharrizko plaketa bat da, eta basahuntz ar bat, orein bat eta zaldi baten irudiak ditu fintasunez grabatuta (6. eta 7. irudia). Plaketa 8 zatitan hautsia eta mailan zehar sakabanatuta azaldu zen. Baliteke, gainerakoak aztarnategiaren induskatu gabeko eremuan egotea. Dena den, ez ziren agertu 2008-2011n indusketa zabaltzean. Lekuko handia geratzen da oraindik hurrengo indusketetarako.

Plaketa, kontserbatzen diren zatiak kontuan hartuta, 15 cm neurtzen ditu goiko ertzetik (oreinaren adarraren koroa ingurutik) behekoraino (basahuntzaren oinak). Animaliak plaketaren formara egokituta daude. Haren ezkerreko alde falta da eta argitzeko zalantza bat geratzen da, ea animalia horiek, edo gutxienez basahuntza, oso-osorik irudikatu zituzten.

Basahuntza (8. irudia) da gehien nabarmentzen den irudia. Ar bat da eta gorputzaren aurrealdea eta beste pixka bat gehiago dauka marraztuta. Nabarmentzekoa dauka burua, bere adar, belarri eta eskuin begi eta guzti. Aurpegia norabide askotako marra laburrez itzaleztatua dauka. Adarretan argi eta garbi nabarmentzen dira haziera-ildaskak, adarraren luzetarako lerroen etenetan sartzen diren zeharkako marren bidez.

Horrela, ildaska horiek eragiten duten etenaldia adierazten dute. Lerro jarraituak soilik adarren urrunaldeetan daude, hau da, haziera-ildaska horiek amaitzen direnean.

Adarren ibilbideak argi eta garbi erakusten du barietate piriniotarrekoa dela eta ez alpetarrekoa. Hain zuzen ere, basahuntz alpetarrak (Altuna, 1976) makurdura bakarra -atzerantz zuzendua- dauka adarretan. Piriniotarraren adarrek aldiz bi makurdura dituzte. Haietako bat atzerantz zuzendua eta bestea alboetara eta gorantz. Gaur egungo bi barietate horiek Madeleine aldirako bananduta zeuden.

Irudiaren gainerakoan, bizkarraldeko lerroak argi adierazten du soingurutzea, eta bizkarrean zehar luzatzen da gibelaldearen hasiera arte. Marra anizkun nahiko luzeekin egina dago. Lepo eta bularraren azpialdeko lerroa marra labur anizkunekin egina dago, eta alde horiei forma ematen diete nolabait. Azpialdeko lerroaren hasiera plaketaren ertzerira iritsi aurretik moztuta dago. Aurreko hankak bizkarreko marren antzekoekin eginak daude, eskuineko hankako atzealdean izan ezik, han laburrak baitira berriz.



8. irudia. Basahuntza bakartuta, hobeto behatua ahal izateko.



7. irudia. Ekaingo
plaketaren marraskia.


0 1 2 3 4 cm



6. irudia. Euken Alonso. 2017.
AZEA. Aranzadi Zientzia
Elkarteko Artxiboa.

Oreinaren (9. irudia) burua, adarra eta lepoaren azpialdea daude marraztuta. Adarra izan ezik, irudia grabaketa-teknika finago batekin egin zuten. Adarra argi nabarmentzen da eta gorantz altxatua dago. Bi punta basal, adarkadura bakoitzaren erdiko puntak eta, azkenik, urrunaldean koroa zabal bat ditu. Hori nabarmen zabaltzen da, animalia horietan sarritan ikusten den moduan. Begia lakrimalarekin eta ahoa ikusten dira buruan. Lepoaren azpialdeko lerroa ere irudikatuta dago. Hori guztia marra fin nahiko laburrekin. Plaketako irudi-multzo osoan (7. irudia), oreinaren burua basahuntzarena baino beherago dago. Adarraren zurtoinak basahuntzaren muturra mozten du, eta erdiko puntaren ingurua kopetaren aurrean dago. Urrunalde edo koroa basahuntzaren adarren abiaburuaren aurrean dago.

Azkenik, zaldi baten aurrealdea aurkitzen da. Hiruretan eskematikoena da. Espezieia zein den antzematen da lepogaineko zurda tentea daramalako, marra azpibertikalekin egina. Jarraian lerro bikoitz bat doa soingurutzeraino iritsi eta beste pixka bat, plaketaren ertzeraino, jarraitzen duena. Burua ere ez zuten osorik marraztu. Ez zioten



9. irudia.
Plaketako oreina.

Pablo Areso ikertzaileak Ekaingo plaketa deskubritu zuen 1973an, indusketa arkeologikoen kide zenean. Irudian, Areso Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ondare Bildumen Zentroan (Gordailua) plaketa eskutan. Mikel Edeso. 2017. AZEA Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxiboa.



begirik marraztu. Muturra lerro soil batekin marraztu zuten, beste xehetasunik gabe. Ez zioten ez sudurrik ez ahorik marraztu. Zurda-multzoak basahuntzaren adarren azpitik jarraitzen du.

Arestian estratigrafia aztertzean esan bezala, Ekain barruko margoak maila horretako biztanleek eginak direla uste dugu. Haien estiloa Goi Madeleine aldikoa da.

2. Hegazti baten ingerada ebakia

2008 eta 2011 arteko indusketetan agertutako Erdi Madeleine aldiko maila berrian, beste aurkikuntza berezi bat egin genuen, arte higigarrikoa hau ere. Bobino handi baten saihests-hezur batean egindako ingerada ebaki bat da, eta irudia egin aurretik barrualdeko gainazal harroa arraildu eta lixatu egin zioten (Altuna et al., 2012), (Altuna eta Mariezkurrena, 2013). Ingerada horrek hegazti bat irudikatzen du, eta lehenengo aldia da gai hori “contour decoupé” batean agertzen dena; izan ere, normalean zaldi-hioidetan egindako objektu-mota horretan, zaldi, bisonte, basahuntz, sarrion, orein eme eta, noizean behin, arrain buruak irudikatu izan dira, baina inoiz ez hegaztiak (10. eta 11. irudia). Ingerada 66,2 mm luze, 19 mm zabal eta batez beste 3,4 mm lodi da. Loditasuna aldatu egiten da hegaztiaren aurrealdetik atzealdera. Aurrealdea atzealdea baino higatuago dago. Hori da, beraz, lodiena. Horregatik, saihestsaren barrualdearen atzeko aldean, oraindik ere ikusten dira hezuraren gainazal harroko albeolo batzuk, baina aurreko aldean erabat desagertuta daude.

Artelana bi aldeetatik oparo landua dago.

Hegaztia perspektiba makur baten arabera irudikatua dago. Burua profiletik ikusita ageri da eta, aldiz, gorputza behetik (edo goitik) ikusita. Horrela soilik ikus daitezke bi hegoak batera. Hori dela eta, irudia ez da simetrikoa bi aldeetatik; izan ere, ez dira animaliaaren eskuinaldea eta ezkerraldea irudikatu, ingerada ebaki ohikoen moduan, bizkarraldea eta sabelaldea baizik.

Kanpoaldea (10. irudia). Hegaztiaren lepo-inguru eta gorputzaren aurrealde osoan luzetarako eta zeharkako ebakiduren sail bat dago. Hegoak gorputzaren kontra dauzka, eta ongi nabarmentzen dira horren eta haien arteko ildaska banari esker. Hegoen kanpoko ertzean 5 ebaki ditu “goiko” hegoan eta 6 “azpikoan”, eta ertz oxkarratua sortzen dute. Hegoen atzeko urrunaldeak gorputzetik bananduta eta apur bat hautsita daude. Gorputzaren eta hegoen arteko aipatu ildasken artean zeharkako hiru ebakidura sakon daude. Hiru ebakidura horien artean, horiei elkarzut diren beste 8 labur daude.

Ebakidura horien atzean, angelu- edo ziri-formako beste 12 gehiago daude, luzetarako hiru errenkadatan lerrokatuta. Artelana ixten duen zeharkako mozketak apur bat jan egiten du azken errenkada. Mozketaren aurretik egindakoak dira. Saihetsaren bi aldeetan zenbait ebaki azpiparalelo eginez eta jarraian tolestuz egin da mozketak.

Barrualdea (11. irudia). Buruaren azpialdeko ertzean, hau da, kokotsean eta ezta-rrian, zeharkako 5 ebakidura labur eta irregular daude. Hegoak kanpoaldean bezalatsu markatuta daude, baina ildaska estuagoen bidez.

Bi ildaska horien artean, kanpoko hiruen antzeko zeharkako 7 lerro finago daude.

Identifikazioa. Hegaztia identifikatzea zaila da. Historiaurreko arteko beste hegazti batzuen kasuan bezain zaila. Hegaztiak ugaztunak baino gehiago dira, eta ez dira hauek izaten duten gelditasunarekin agertzen.

Kasu honetan, hegoak gorputzera bilduta dituelako, uretan murgiltzeko jarrera duen hegazti bat, martin arrantzaleak (*Alcedo atthis*) (12. irudia) egiten duen moduan, ikusteko joera du batek. Baina jakin beharko litzateke, hegoak biltze horrek hori adierazten duen ala saihetsaren eremu mugatutik kanpora hego horiek zabaltzeko ezintasunak eragindakoa besterik ez den.



10. irudia. Bobido handi baten saihets-hezur bateko ingerada ebakia, hegazti bat irudikatzen duena. Saihets-hezuraren kanpoaldea.



11. irudia. Ingerada bera saihets-hezuraren barrualdetik.



12. irudia. Ekaingo hegaziaren eta martin arrantzalearen (*Alcedo atthis*) arteko konparazioa.

Aitzitik, jarrera orokorrak anatidoak gogorarazten ditu. Antzararen (*Anser*) lepo eta hegoetako marrek ere gauza bera gogorazi dezakete (13. irudia). Hegan doazenean hanka palmatuei elkartzen zaizkien lema-lumen amaierak ere Ekaingo hegaziaren atzeko errematea gogorarazten du. Lumen muturren ingerada oxkarratu bidez jaso egon daiteke, hegoen kanpoko ertzean adierazi dugun moduan.

Dena den, hegazti askoren kanpo-morfologian ikus daitezke, Ekaingoa ikusten ditugunak gogorarazten dizkiguten berezitasunak, batez ere, aliota artikoarenean (*Gavia arctica*) eta aliota handiarenean (*Gavia immer*) (14. irudia). Historiaurreko euskal aztarnategietako hegazti-faunazko aztarnen artean, agertu izan dira *Anser anser* nahiz *Gavia arctica*. Ekaindik hurbilen dauden aipamenak ditugu Isturizko Madeleine aldiko *Gavia arctica* eta Urtiaga eta Santimamiñeko *Anser anser*.

Ekaindik zuzenean 70 km-ra dagoen Isturizko aztarnategian, zaldi-hioide gaineko ingerada ebakien sorta aparta dago, eta garai berekoa da.

Bi ale horien erreplikak, plaketa eta ingerada ebakia, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroaren baimenarekin egin dira, eta, beste museoen artean, Ekaingo erreplikaren eranskinetakoan ere badago.



13. irudia. Ekaingo hegaztiaren eta antzararen (*Anser anser*) arteko konparazioa.



14. irudia. Ekaingo hegaztiaren eta aliota artikoaren (*Gavia artica*) arteko konparazioa.

04


Suharriak eta eguneroko bizitza

“(...) al principio el o la tallista ve una piedra y si su forma es útil, la coge y la aprovecha, luego va adaptando formas: saca un núcleo y lo aprovecha; después, además del núcleo consigue una lámina con la que hace un buril y, así, vas teniendo las diferentes jugadas del ajedrez. (...) el ser humano trabajando “aquí, en y para”. ”

“(...) no me interesa la azagaya sino quién la hizo, si aquella persona era igual que yo, pensaba como yo o si llegaba a tanto o me superaba.”

José María Merino. 1969






Daniel Ruiz-González

Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila, UPV/EHU
Aranzadi Zientzia Elkarte

Ekaingo leizea (Deba, Gipuzkoa), Zestoako herrigunetik 1,5 km eskasera dago. Barrunbe hori Izarraitz izeneko kare-harrizko mendigunearen ekialdeko maldan ageri da, Goltzibar eta Sastarrain errekek bat egiten duten tokian (Urola ibaiaren erdi-arroko ibaiadarrak biak ere). Itsasoaren mailatik 90 metrora dago, eta haranaren hondotik 20 metro ingurura. Kostalderaino lerro zuzen bat eginez gero, 7 km emango lituzke. Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu, Holozenoa iristearekin bat, aldatu egin zela kostako lerroa: izan ere, itsasoaren mailak igoera handia izan zuen (50 eta 80 m artekoa). Hori dela eta, orografiaren arabera, urpean geratu zen lau, sei edo hamar kilometroko lur-zerrenda bat, 1000 km² inguru, alegia (García-Moreno, 2010: 47) (1. irudia).



1. irudia. Kantauri-itsasertzeko hainbat aztarnategi, Goi eta Amaierako Madeleine eta/edo Azil aldietako mailetan. 1. La Paloma; 2. Cueva Oscura de Ania; 3. La Lluera I; 4. Cueto de la Mina; 5. La Riera; 6. Los Azules; 7. La Uña; 8. Cualventi; 9. La Pila; 10. Cueva Morín; 11. La Garma A; 12. Piélago II eta Rascaño; 13. Peña del Perro; 14. El Mirón eta El Horno; 15. San Juan; 16. Arenaza I; 17. Urratxa III; 18. Silibranka eta Bolinkoba; 19. Atxeta; 20. Santimamiñe; 21. Santa Catalina, Lumentxa eta Atxurra; 22. Berniollo; 23. Martinarri; 24. Atxoste; 25. Kukuma eta San Adrian; 26. Anton Koba; 27. Langatxo 1 eta Ermitia; 28. Aizkoltxo eta Agarre; 29. Urtiaga; 30. Ekain eta Astigarraga; 31. Erralla; 32. Aitzbitarte IV; 33. Pikandita; 34. Portugain; 35. Berroberria; 36. Abautz; 37. Zatoya.

Aztarnategi arkeologikoa, barruko irudikapen artistikoak albo batera utzita, atondoan ageri da, bai eta haren ezkerretan dagoen galeria batean ere, 20 m². inguruko azalera. Lau metrotik gorako estratigrafia batekin, Paleolitikoko eta Epipaleolitikoko fase kronologiko eta kultural garrantzitsuak ageri dira irudikatuta (Altuna eta Merino, 1984; Altuna, 2012):

- I. maila: Nahasia, haur baten ehorzketarekin eta Azken Neolitikoko-Kalkolitikoko hainbat materialekin.
- II. maila: Mesolitikoa eta Azil aldia, Sauveterriarren ñabardurekin.
- III. eta IV. mailak: Azil aldia (zuhurtasunez IV. eta V.a).
- VI. maila: Goi eta Amaierako Madeleine aldia (a eta b) eta Madeleine Ertaina (c).
- VII. maila: Behe Madeleine aldia.
- VIII. maila: Gravette aldia.
- IX. maila: Antzinako Aurignac aldia.
- X. maila: Châtelperron aldia.

Batez ere, Pleistozeno garaitik Holozeno garaira bitarteko trantsizio mailak izango ditugu ardatz; hau da, Paleolitikoaren amaiera eta Epipaleolitikoaren hasiera (12.800-9.000 oraina baino lehen), horiek baitira leizean ondoen irudikatutako aldiak; zehazki, Goi eta Amaierako Madeleine aldia (12.800-11.800 oraina baino lehen) eta Azil aldia (11.800-9.000 oraina baino lehen). Gainera, Holozenoko hobekuntza klimatikoaren testuinguruan, aukera ematen digute Ekaingo arteaz arduratu ziren taldeek izan zituzten eraldaketa sozioekonomikoak ikusteko.

Harrizko industria da Historiaurretik iritsi zaigun ebidentzia arkeologiko ugarienetakoa -eta Ekain ez da salbuespena-; hari esker, Paleolitikoko taldeen bizimoduak berreraiki ditzakegu. Askotariko lehengai mineralak baliatzen zituzten, hala nola kuartzitak, ofitak, limonitak, hareharriak, basaltoak eta abar (alegia, grabaketak egite-

ko, margotzeko eta halakoetarako nukleo, moleta, kolpekari, mazo edo euskarri gisa). Nolanahi ere, material litiko horien guztien artetik, silexa edo suharria nabarmentzen da. Ikus dezagun, beraz, zein diren gizarteon eguneroko martxako oinarrizko lehen-gaien ezaugarri, azaleratze eta barietate nagusiak.

Erdi Paleolitotik aurrera, gero eta interes handiagoa suma dezakegu arroka-silizeo horiek baliatzeko, nahiz eta haiekin batera jatorri ez-silizeoa zuten beste arroka batzuk ere erabiltzen zituzten (esaterako, limonitak, ofitak, bulkanitak...). Dena den, Goi Paleolitotik aurrera suharria izango da lehengai gustukoena tresnak fabrikatzeko. Horretarako arrazoen artean, hainbat nabarmendu izan dira:

- gaitasun apartak ditu tailarako (haustura konkoidea), eta erauzi beharreko euskarrien gaineko kontrol handia ahalbidetzen du (printzak, ijelkiak eta abar), baita lehengai bikain kudeatzea eta aprobetxatzea ere;
- aho oso zorrotzeko produktuak eskuratzea;
- berriro ukituak emateko erraztasuna;
- gogortasun handia (7koa, Mohsen eskalan).

Gaur egungo Euskal Herriaren mugen barruan, kalitate handiko suharriaren hainbat azaleratze ageri dira espazioan kokatuta, eta, horri esker, eremu hau paregabea zen materia horiek eskuratu ahal izateko.

Silex horiek -neurri handi batean A. Tarriñok (2006) deskribatuak-, testurarekin eta harriarekin lotutako hainbat ezaugarriaren arabera sailka daitezke (testura, kolorea, formazioaren testuingurua, mikrofosilak, inklusio materialak eta abar. Sailkapen horiei esker, populazio horien lurralde- eta mugikortasun-dinamiketara gerturatzeko aukera dugu. Honako hauek dira orain artean identifikatutako mota eta barietate nagusiak -Gipuzkoako Historiaurreko aztarnategietan ageri direnak- (Tarriño et al., 2016) (15. irudia, or. 73):

- **Pirinioetako Flysch suharria.** Itsas giro sakonetan ezarritako eraketa geologikoei dagokie, Kretaziko eta Paleozeno aldietako prozesu turbiditikoen bidez ezarri, alegia. Grisaxkak edo beltzaxkak izan ohi dira, eta laminazioak izan ohi dituzte paraleloan, baita belaki-espikulak ere, besteak beste. Bost barietate nagusi ditugu, azaleratze-tokiari lotutako izenekin: Kurtzia, Gaintxurizketa, Bidatze/Mugerre, Iholdi eta Artxilondo.
- **Trebiñu suharria** Miozenoko eremuetan dago, Miranda-Trebiñu zokogunean, eta aintzira-jatorria du. Araiko mendilerroaren hainbat estratutan azaleratzen da, baita Kutxu eta Busto mendietan ere. Kolore marroixkak izan ohi dituzte, baita eraztun zentrokide bereizgarriak ere -Liesegangen eraztunak-. Halaber, fosilak (ostrako-
doak, gasteropodoak eta abar) edo alga-laminazioak ere ageri izaten dituzte. Estratuaren eta konposizio- eta testura-ezaugarrien arabera, barietate batekoak ala besteak definitzen dira.
- **Urbasako suharria,** kanpoko itsas plataformakoa, Urbasa mendilerroko Paleozeno estratuetan topa dezakegu. Ingurune karstikoetan ohikoak diren disoluzio-prozesuak direla eta, silexak ahokatutako zeuden kareharri-arroketatik erortzen joan dira, zokogune eta dolinetan ezarriz. Horri esker, erraz eskuratzeko moduan zen, frekuentazio etengabeekin, hasi Behe Paleolitikoan eta Historiaurre hurbileraino. Ekinodermoen arantzak eta zatiak ez ezik, foraminiferoen fosilak ere ageri dituzte (diskoziklinidoak eta nummutilidoak).
- **Ipar Pirinioetako** suharrien barruan, hainbat motatakoak ditugu, eta ondoren aipatuko ditugu horietatik identifikatu ditugunak, bai Ekainen, bai inguruko aztarnategietan:
 - o Salies. Suharri-nodulu irregularrak dira, bioturbazioak ageri dituzte, grisaxkak (zonifikazioekin) eta pikor finekoak. Goi Kretazikoan eratu ziren, itsas arro sakonetan.
 - o Chalosse. Goi Kretazikoko suharri-noduluak, plataforma karbonatatuak. Pikor

finekoak, kolore zeharrargi grisaxka-beltzaxkak eta bioklastikoak dituzte (briozooak, makroforaminiferoak eta abar). Audignon-Montaud inguruan topa ditzakegu. Topatu da halakoen presentzia Gipuzkoako, Bizkaiko, Kantabriako eta Asturiasko aztarnategietan.

- o Tercis. Tercis-les-Bains udalerrian kokatutako Grande-Carrière harrobiko hainbat estratutan azaleratzen dira nagusiki. Nahiz eta hainbat barietate ditugun -estratuaren arabera- eskuarki kolore ilunekoak izaten dira, eta, batzuetan, foraminifero txikiak ageri dituzte.


Jakina denez, badira beste hainbat mota eta barietate ere (Ebroko Ebaporitikoa, Loza/Picota mendia, urgondarrak eta abar), eta, hainbat arrazoi tarteko (irisgarritasuna, tailatzeko kalitate kaskarra eta abar), toki irisgarriagoetan bakarrik -edo ez- aprobetxatuko dituzte (hedapena silexaren kalitateak zehaztuko du), eta garai jakinetatik aurrera (adibidez, ebaporitikoa Neolitikotik aurrera orokortuko da).

Taldeek bazuten azaleratze horien berri, eta maiz joko dute haietara milaka urtean, belaunaldiz belaunaldi: horrek erakusten du bikain ezagutzen zutela ingurunea eta transmititzen zituztela jakintzak.

J. M. Barandiaranek eta J. Altunak Ekaingo harrizko industriari buruzko inbentarioa egin zuten hasiera batean (1977). Baina sakoneko lehendabiziko azterlana J. M. Merino doktoreak si-




2. irudia. José María Merino doktorea. Pablo Sánchez. 2004. AZEA Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxiboa.



4-5-6-7. irudiak. Ekaingo hainbat industria litikoren erregistro-fitxak, Merino doktoreak eginak, leizean berreskuratutako erreminta litiko-koen azterlanak egiteko xedez.

natu zuen (1984) (irudiak: 2, 4-7); hain zuzen ere, hainbat diziplinatarako talde batek egindako azterlan bateko emaitzen monografiaren argitalpenean (Altuna eta Merino, 1984). Barne-doktore gisa jardun zuen lanean, Aranzadi Zientzia Elkartearen Historiaren eta Arkeologia Sailarekin estu lotuta eta Historiaren harrizko industriekin zuzen zaletasun handia uztartuz. Aitzindaria izan zen Georges Laplaceren Tipologia


Analitikoa aplikatzen, eta lan garrantzitsuak egin zituen; horien artean, aipatzekoak dira Gipuzkoako bizkardun puntan azterketa tipologikoa eta estatistikoa, material litikoen azterketa, Ekain eta Urtiagako leizeen Azil aldira egokitzeko prozesuari buruzkoa, edo Higer lurmuturrean topatutako industriei buruzko argitalpena. Historiaurretik harago, ekarpen mardulak egin zituen arrantzaren historiari buruzko jakintzarako, *La Pesca desde la Prehistoria hasta nuestros días* lanarekin, eta nabarmentzekoa da, halaber, Untzi Museoari dohaintzan emandako bilduma etnografiko garrantzitsua. Horien guztien gaineratik, ordea, *Tipología Lítica* (Merino, 1994) bilduma erabat osoa da azpimarragarria, Aranzadi Zientzia Elkarteak hirutan ere argitaratu eta berrargitaratua (3. irudia). Gaur egun ere, Espainiako Estatuan kale-ratutako eskulibururik osoenetako eta ondoen ilustratuenetakoa da. Ekainen kasuan, ikerlan bikaina egin zuen, azterketa tipologikoak, teknologikoak eta estatistikoak uztartuz, honako bi helburu hauekin: maila bakoitzaren ezaugarriak definitzea, eta haien artean ez ezik Urtiaga eta




3. irudia. Merino doktoreak idatzitako *Tipología Lítica* argitalpenaren azala. MUNIBE. 1994. Aranzadi Zientzia Elkarteak.

bestelako aztarnategiekin ere alderatzea. Berak eta beste hainbat ikerlarik abiarazitako bideari jarraikiz, gaur egun oraindik ere leize horiek aztertzen jarraitzen dute, metodologia berriak baliatuz ezaugarri tekno-tipologikoei edo petrologikoei buruzko ezaugarriak definitzeko, baita estrategia sozioekonomikoak berreraikitzeko ere.


Ekaingo Goi eta Amaierako Madeleine aldiko harrizko industria ia osoa, baita Azil aldikoa ere, suharriarekin eginda daude, kolpekari edo harri tailaturen bat izan ezik. Industriok, funtsean, antzeko samarrak dira, eta kronologia horietako elementu tipikoak ageri dituzte (Irudiak: 8-10).



8. irudia. Ekaingo III. mailako harrizko tresnak (Azil aldia): 1-2: Marruska frontal bakunak; 3: Karraskagailu bikoitza, mozturadun oinarriarekin; 4-5: Moztura zehiarrak; 6: Bizkardun puntabikoia; 7-8; Mozturadun bizkardun puntak; 9: Protogeometrikoa; 10-19: Bizkardun punta lerrozuzenak eta kurbatuak, ijelkien eta printzen gainean; 20: Bec/Zulagailua; 21-22: Zulakaitzak.



10. irudia. Ekaingo IVa mailako harrizko tresnak (Goi eta Amaierako Madeleine aldia): 1-9: Bizkardun puntak; 10-14: Bizkardun ijelkiak; 15-16: Marruska frontal sinpleak; 17-18: Tresna konposatuak: Marruska frontal sinplea, bec/zulagailuari kontrajarria, eta zulakaitzari kontrajarritako marruska; 19: Mozturadun ijelkia, alboko koskekin; 20: Bec/Zulagailua; 21: Zulakaitza, oihal albo-zeharkatuekin; 22: Alboko karraskagailudun ijelkia eta erabileraztarnak; 23: Ijelki txikien nukleoa.



9. irudia. Ekaingo IV. mailako harrizko tresneriak (Azil aldia, Goi eta Amaierako Madeleine aldia?): 1-5: Zerradun garrodun ijelkitxoak; 6-7: Marruska frontal bakunak; 8: Mozketa konkaboa, alboko karraskailuarekin; 9-13: Zulakaitz konposatuak, hainbat erauzketarekin.

- Bizkardun edo garrodun elementuak.
 - o Aztarnategian gehien ageri diren tresnak dira. Eskuarki, hainbat neurritako ijelkietan egiten dira, eta ahoetako bat ukiera malkartsu batekin lantzen da (90º) (Merino, 1994: 112 eta hurrengoak). Hainbatetan, aldaketa horiek beste batzuekin uztartzen dira, pedunkuluak edo bestelako formak osatzeko, guztia ere arrantzarako edo ehizarako heldulekura hobeto egokitzeko, baita bestelako zereginetarako ere -hala nola ebakitzeko-.
 - o Madeleine aldian, pieza horiek nahikoa estandarizatuta ageri dira, eta eskuarki luzeak, lerdinak eta bizkar lerrozuzenak izan ohi dituzte. Era berean, badugu beste elementu diagnostiko bat ere kronologia hauetarako: zerradun garrodun ijelkitxoak, gure inguruko eta Kantauri itsasertzeko aztarnategietan ageri direnak.

Dena den, Azil aldiko trantsizio-aldian ikusten dugunez, formak eta euskarriak dibertsifikatu egingo dira, eta bizkar kurbatuak agertuko dira, printzen gainean eginak. Era berean, estandarizazio horren erlaxazio bat ere ikusiko dugu, eta bizarraren punta moztuak, bi puntakoak edo protogeometrikoak agertuko dira.

- Zulakaitzak.

- o Tresna horiek honako helburu honekin tailatzen dira: hausturen bitartez, angelu diedro bat lortzeko (Merino, 1994: 78-99). Horretarako, zulakaitz-kolpearen teknika baliatzen da, printza edo ijelki baten alboen gainean, alde zurratik prestatuta edo gabe (ebakidurak, hausturak, bestelako zulakaitz-planoak eta abar). Horren arabera, hainbat eratako zulakaitzak eskuratuko ditugu: diedroak, albo-atalak, ebakidura gainekoak eta abar. Bariazio tipologikoak hainbat eratakoak izan litezke, segun eta zer angelu eskuratu nahi dugun, zer aprobetxamendu-maila, zulakaitza berriro erabiltzea, euskarriaren jatorrizko morfologia eta abar. Tradizionalki, tresna hauek adarren eta hezurren gainean egindako lanekin lotu izan dira, baita arroka gaineko edo bestelako animalia-materietan egindako grabatuetarako ere.
- o Madeleine aldiaren erabili eta dibertsifikatu ziren gehien tresna horiek, ziurrenik, hezur-errepertorio zabala eta grabatu ugari izateak lagunduta. Halere, Azil aldira igarotzeko trantsizio-aldian, nabarmen murriztuko dira, hezur-industria ere bat-batean urritzearen ondorioz eta arte higigarrietako, leize-barruetako eta abarretako grabatuak desagertu ostean (salbuespenak albuespen). Ekainen ugari dira -egitura horren zaindukoak ez badira ere-, eta ez da ohikoa garai hartarako.

- Marruskak.

- o Ijelki edo printzen gainean egindako tresnak, aurrealde kurbatua izan ohi dute, ukiera soilez eginga (45°-ko angelua) (Merino, 1994: 99-110). Tipologia ugari dira,

honako faktore hauen arabera: euskarria, kurbatura gradua edo marruskaren aurreak duen zabalera, beste ukiera mota batzuekin duen artikulazioa euskarri beraren gainean eta abar. Larruzala -edo bestelako elementu begetalak zein mineralak- harraskatzearekin lotuta daude.


- o Ekainen nahiko gutxi dira, eta ez oso bereizgarriak. Gehienak marruska sinpleak dira, eta, kasuren batean, konposatuak; hau da, euskarri berbera aprobetxatzen da beste erreminta bat egiteko -hala nola zulakaitz-harraskagailuak-. Apenas ageri da alderdik aro batetik bestera; izan ere, Azil aldian ez da agertuko azazkal-erako marruskarik, fosil-gida gisa hartzen denik.

Horrez gain, garai gehienetan ohikoak diren beste hainbat pieza ere topatzen dira, substratukoak, alegia -karraskagailuak, koskak, puntak edo horztunak-. Eta beste hainbat horren ohikoak ez direnak: mozkailuak eta bec/zulagailuak. Era berean, ezin dugu ahaztu lanketa, printzen, ijelkien edo nukleoen edozer bazterkin inolako aldaketa edo akabera gabe erabil zitekeela -eta hala erabiltzen zela-, ertz zorrotz naturalak, hausturak eta morfologia jakinak zituzten euskarriak aprobetxatuz, besteak beste.

Pieza eta erreminta horiek zuzenean erabil zitzaketen; halere, kasu askotan beharrezkoa eta/edo desiragarria zen nolabaiteko helduleku bat ipintzea, hezur- edo landare-euskarriren batekin. Horri esker, samurrago maneiaturiko eta erabiliko baitzuten. Kasurik bistakoena bizkardun elementuak dira: banaka edo konbinatuta, egurrezko kirtenetan edo hezurrezko euskarrietan txertatuta egongo ziren, lantza, gezi, daga eta halakoen moduan baliatu ahal izateko. Nahiz eta euskarri eta helduleku horiek nekez kontserbatzen diren, posible da materia organikoa deskonposatu ostean piezek batera samar irautea, iradokiz tresna konposatu berarenak zirela. Alde horretatik, J. M. Merinok (1984: 158) kasu posible bat identifikatu zuen Ekaingo II. mailan (Azil aldia, Sauveterriarren ñabardurekin). Eraikuntza-proposamen hori sendotuta geratzen da, Europa iparraldeko eta Volga inguruko zohikaiztegietan eta lokaztietan izandako aur-

kikuntza paregabeen bidez (Ronnëholm edo Loshult Suedian, Holmegaard IV Danimarkan, Zamostje 2 Errusian, eta abar) (Larsson et al., 2016; Zhilin, 2001) (11. irudia).

Alderdi teknologikoari erreparatzen baldin badiogu, identifikatuko dugu kolpe-kari gogorak baliatzen direla (mineralak), baina baita bigunak ere (adarrak, egurra, hezurak eta abar), nahiz eta bigarrenen aldeko hautua den nagusi, bereziki ijelkiak eskuratzeko. Madeleine aldiaren amaieran, nukleoa tailatzeko hainbat estrategia topatuko ditugu (polobakarrak, polobikoak eta konposatuak), produktu ijelkiarrak eskuratzera bideratuak. Horiexek dira, hain justu ere, lehenetsitako euskarriak aztarnategiko tresna gehientsuenetan, bereziki, esandako bizkardun punta eta ijelkien kasuan. Tresna horiek fabrikatzeko baliatutako ijelkiak luzexkak eta estuak izan ohi dira, hainbat neurritakoak, nahiz eta gehienetan txikiak izaten diren (4 cm baino txikiagoak). Azil aldian, nahiz eta aurreko estrategiek jarraitzen duten, hain egituratua



11. irudia. Kontserbatutako tresna konposatuen adibidea, zurezko ezpalak eta bizkardun ijelkiak, bizkardun puntak eta/edo geometrikoak erabiliz fabrikatuak: 1. Rönneholm, Suedia (Larsson eta Sjöström, 2011); 2. Ekaingo II. mailako tresna konposatu posible baten berreraikuntza-proposamena (Merino, 1984); 3: Loshult, Suedia (Larsson eta Sjöström, 2011); 4: Zamostje 2, Errusia (Ignacio Clemente, CSIC).

ez zen moduan hasiko dira kudeatzen masa silizeoak, norabide askotan, eta haren helburua izango da nukleoaren ustiaketa maximizatzea, harik eta agortu arte. Aldi berean, produktu txikiagoak eta horren estandarizatuak ez direnak baliatuta, hobeto aprobetxatzen zen suharri-nodulu edo -nukleo bakoitza. Horren guztiaren bidez, itxuraz pragmatikoagoa den ikuspegia baliatuta, lehengaien kontsumoa murriztu bide zuten, eta, ondorioz, bidaia gutxiago egin beharra hornidurak eskuratzeko.

Datu horiek guztiak eta lehengaiak identifikatu ostean eskuratu ditugunak lotzen baldin baditugu, zera ikusiko dugu: Ekainen, Goi eta Amaierako Madeleine eta Azil aldietan, lehen ikusitako suharri moten ale kopuru nabarmena dugula. Hainbat ingurutako suharriz egindako hondarrak eta piezak ditugu, hala nola Flysch (Kurtzia, Bidatze eta Gaintxurizketa), Urbasa, Chalosse, Trebiñu (hainbat barietate), Salies eta ziurrenik Tercis aldekoen bat ere bai. Gehien-gehien ageri den suharria Ekaindik gertuen da-goena da, hau da, Flysch erakoa. Ondoren, Urbasakoa eta Chalosse aldekoa ageri dira gehien. Trebiñukoa eta Saliesekoa oso noizean behin azaltzen dira. Informazio horretatik, beste hainbat alderdi ere ateratzen dira; konparazio batera, taldeen mugikortasuna, edo suharri mota bakoitzarekin lotutako taila-faseak eta -prozesuak.

Bi garai kronologiko eta kulturalotan, tankera bereko hornidura-joerak dira nagusi, nahiz eta ehunekoetan aldakuntzak ere badiren, adierazten digutenak Flysch motako suharria nagusitu zela Azil aldian, gainerakoaren bizkar. Hori, inondik ere, gero eta erregionalizazio handiagoarekin lotu nahi izan da, taldeen mugikortasun txikiagoarekin, gertuagoan eta eskuragarriago dituzten lehengaiak aprobetxatzeko joera izango zuten aldetik. Aldaketa horiek bistakoagoak dira Kantauri mendebaldean (Asturias edo Kantabrian), non silexaren edo kalitate okerragoko bestelako materien erabilera zabaltzen hasiko baita (cherta, erradiolaritak, kuartzitak...). Gure inguruan, ikusi dugunez, nahikoa ugari dira suharri mota desberdinak, tailarako kalitate paregabeak dituztenak; hori hala, aldaketa horiek ez dira hain garbiak, ezta berehalakoak ere, nahiz

eta ikus dezakegun ari zela zerbait mugitzen. Aldaketa-prozesu konplexuak ditugu, eta ez bat-bateko etenaldiak. Eta harrizko industrian ikusten duguna ez da eraldaketa sozioekonomiko handien isla baino, ziurrenik arrazoi endogenoek (aldez aurreko joerak, giza kontingentzia eta abar) eta exogenoek eragindakoak (ingurumenarekin, paisaiarekin eta faunarekin lotutako aldaketak, beste talde batzuekin izandako elkarre-raginak...). Ekain horren guztiaren adibide dugu. Bere erregistroan -VI. eta III. mailen artean edo II. mailan- Pleistozenoaren amaieran eta Holozenoaren hasieran izandako aldaketen lehendabiziko zantzuak ikusiko ditugu; hau da, Paleolitoaren amaieran eta Epipaleolitoaren hasieran, eta, ondoren, Mesolitoan gertatutakoak.

Hala eta guztiz ere, suharria bakarrik ez zenez iturri nagusia, ezin dugu ahaztu eguneroko martxan beste materia batzuk ere baliatuko zituztela. Eta ez mineralak bakarrik, baita organikoak ere. Horien artean, animalietatik eratorriak (hezurrak, adarrak, hortzak, tendoiak, larruak, lumak, maskorrak eta abar), eta bitarteko begetalak (egurra, hostoak, sastrakak, erretxinak eta abar). Horietatik gehienak ez dira gure egunetara iritsi, aztarnategi jakinen eta oso apartekoen kasuan izan ezik (hala nola egurrak, hostoak edo tankerako elementuak kontserbatzen dituzten testuinguru anaerobikoak eta zohikaztegiak, basamortu-inguruak edo etengabe izoztutakoak...).

Makina bat aztarnategitan agertu izan dira fauna-hezurrez egindako elementuak eta industrialak, hala-hola kontserbatuak. Lehendabizikoetatik, natura-ingurunea eta ehizatzen zutena berreraikitze modua dugu, eta bigarrenek, berriz, animalia horien aprobetxamendua eta kudeaketa erakusten digute, hainbat eratako erremintak, apaindurak, arte higigarriko objektuak eta tankerakoak fabrikatzeko.


Ekaini dagokionez, hezurrez egindako industriak, urri samara bada ere, kronologiki pieza ordezkagarriak erakusten dizkigu, eta antzekotasun nabariak dituzte Gipuzkoako gainerakoekin, baita Kantauri itsasertzekoekin eta Pirinioetan topatuekin

ere (Mujika-Alustiza, 1991) (12-14 irudiak). Hori hala, nabarmentze-koak dira hortz-ilara bateko lau arpoiak, edo VI. mailako zizel apaindua, argi eta garbi Goi eta Amaierako Madeleine aldikoa, Urtiagako leizean topatutako tresnen oso antzekoa. Horrez gain, hainbat punta edo azagaia ditugu, batzuk apainduak, baita leungailu bat, adarrez egindako beste hainbat tresna fabrikatzeko hondarkinak eta orratzak ateratzeko matrizeak ere.

III. mailan, hiru hondakinekin, arrankazi-oinarri bereizgarri bat dugu, zapala, inolako zalantzarik gabea, argi eta garbi Azil aldian kokatzen gaituen botoi-zuloarekin. Alabaina, ez dira horren tipikoak azagaia erdialdeko zati bat, ildo sakonak dituen, eta arpoi-hortz bat, nahiko angelutsua. IV. eta V. mailai dagokienez, fabrikazio-hondarkinak eta hezur-tresnak -gutxi badira ere-



12. irudia. Ekaingo arrankazi edo arpoiak. 1-4: Apaindutako hortz-ilara bateko arpoiak, VI.a maila (marrazkiak: Baldeón, 1984); 5-6: III. mailako arrankazi-hortz angelutsua eta arrankazi lau zulatuaren oinarria. Azil aldiko arpoiaren berreraiketaren proposamena (Baldeón, 1984).



13. irudia. Ekaingo hezur-industria puntadunak: 1. Zulo sakonez apaindutako azagaia eta ahuntzaren eskematizazio posiblea (marrakia: Baldeón, 1984); 2-3: Alaka bikoitzeko azagaien zati proximalak; 4: Azagaiaren zati medial-distala; 5: Elementu puntabikoa.



14. irudia. Hezur-industrien fabrikazio-hondar-kinak: 1-2: Zerraketa-arrastoak ageri dituzten matrizeak, mihiak ateratzeko, VI. maila; 3: Mihi-zatiak, V. maila.

ugari samarrak dira beste aztarnategiekin alderatzen baditugu. Horrek zera adieraziko luke (beste hainbat alderdiren artean), Goi eta Amaierako Madeleine aldikoak direla. Fabrikazio-bazterkin edo matrize bat dugu, adar baten ezpala edo mihi bat, apaindutako ziri baten zatia –ebakiak dituela, luzetara eta zeharretara–, eta lau punta edo punta-zati.

Materia galkorretara bueltaturik, batzuetan posible da, askotariko zientziak baliatuta, haien erabilerari buruzko zeharkako zantzuak eskuratzea. Esate baterako, honako hauen bidez: palinologia (polenak aztertuta), karpologia eta antrakologia (haziak eta egurrak, gehienak kiskaldurik), trazeologia (erabilera- eta funtzionalitate-aztarnen analisia, batez ere industria litikoetan), hainbat analisi geokimiko edo elemental (zeramiken edukiak, kontserbatutako elementuetan topatutako beste hainbat elementuren arrastoak) eta abar.

Arkeologia esperimentalta eta etnografia dira erregistro arkeologikoa berreraikitzeke beste bi funtsezko elementu. Lehendabizikoaren bidez, oso era desberdineko hipotesiak edo proposamenak aldera ditzakegu erregistro arkeologikoarekin, hala nola harrizko industriaren taila edo erabilera, bizileku-eremuen (berr)eraikuntza eta erabilera zein funtzioak. Bigarrenak, berriz, gizarte ehiztari eta biltzaileen edo industria aurreko gizarte nekazarien edo abeltzainen eguneroko martxa, erabilerak eta ohiturak erregistratzen ditu -egungoen aurrekoak edo azken mendeetan desagertuak-. Hori hala, iragandako errealitate bat berreraikitzeak dituen zailtasunen berri ematen digu, jakinik erregistro oso partzial eta oker samarregatik abiatzen garela. Are gehiago fosilizatzen ez diren antolaketa moduetara, auzietara eta sinesmenetara iritsi nahi dugunean; izan ere, giza kontingentziaren zati izanik, oso hegazkor suertatzen dira, aldakorrek denboran. Eta, gainera, ezin izaten dira alderatu -kasurik gehienetan-. Hori dela eta, nahiz eta hamaikatxo aukera eskaintzen dizkiguten, kontu handia izan behar dugu egungo taldeon gainean aplikatzeko garaian -edo azken bi mendeetan dokumentatuen gainean-, ebidentziak interpretatzeko eta iragana berreraikitzeke.

Aztertu ditugun elementuon guztion baturaren bidez, Ekaingo aztarnategiaren funtzionalitateari buruzko hainbat alderdi itxura ditzakegu (irudikapen grafikoak albo batera utzita), baita inguru haietan ibili ziren taldeen estrategia sozioekonomikoei buruz ere. Hasiera batean baieztatutako moduan (Altuna eta Mariezkurrena, 1984),

urte-sasoiko erabilerako tokia dugu, jarduera zinegetikoekin estu lotua, oreinak eta basahuntzak ehizatzearekin espezializatu samarrik. Badirudi erabilera hori mantendu egiten dela denboraren joanarekin, eta, hala, joan-etorri errepikakorra dokumentatzen da leizean, Goi Paleolitikoko etapa berrienetatik, haren amaieratik aurrera eta Epipaleolitikoaren hasieratik nabarmen areagotuz -Holozeno aldiko hobekuntza klimati-koarekin bat etorriz, era berean-.

Hori hala, Ekainen, harri- eta hezur-ebidentziek ere baieztatu egiten dute, itxuraz, ideia hori; izan ere, erregistroan aldakuntzarik topatuko badugu ere, ehizarekin -edo arrantzarekin- lotutako elementuak dira nagusi (bizkardun puntak eta laminak, arpoiak, azagaiak eta abar), eta, neurri txikiagoan, ehizatutako animaliak lehendabizikoz prozesatzeko eta bestelako jardueretarako tresnak (marruskak, karraskagailuak, erabilera arrastoak dituzten printzak eta ijelkiak, eta abar). Era berean, praktika horietara bideratutako euskarriak lortzeko eta mantentzeko tresnak tailatzeko, ukierak egiteko eta konpontzeko prozesuak ere ikusten ditugu. Eta tresnak konfiguratzeko, erabiltzeko eta konpontzeko ebidentziak ere bai. Hezur-industriak ere norabide horren berri ematen digu, nahiz eta, ikusi dugunez, urri samarra izan. Hala, matrize eta fabrikazio-hondarkin gutxi izateak esan nahi du elementurik gehienak fabrikatuta -edo neurri handi batean konfiguratuta- iristen zirela leizera, eta, ondoren, hantxe botako zituztela (hautsita egoteagatik...).


Nolanahi ere, ulertu behar dugu Ekaingo aztarnategia zera dela, pieza bat gehiago, Madeleine eta Azil aldietako taldeek urtaroaren arabera egingo zituzten lurraldearen kudeaketa- eta ustiaketa-engranaje konplexuan. Leizea urtaroko ehizaren geldialdi gisa baliatuko zuten; hau da, kanpamendu satelite gisa. Eta aldi behin joko zuten haietara, leizeetan zituzten asentamendu nagusietatik (Urtiaga edo Ermittia, adibidez) edo aire zabaletik. Era berean, izango zituzten arrantzarako beste establezimendu batzuk ere, edo itsaskiak eskuratzekoak (III. eta II. mailetatik aurrera, ugaritu egin-

go da praktika hori) eta lehengai silizeoak biltzekoak. Eta ezin ditugu ahaztu, halaber, inguruko agregazio-aztarnategiak, hala nola Isturitzekoa.

Nabarmendu behar da, hezur-industriak eta bereziki harrizkoa aztertuta, ez dirudiela ustiapen intentsiborik edo joan-etorri errepikakorrik zenik leizean aztertutako aldi horietan. Badirudi aldian behin erabiltzen zela, nahiz eta ez den erraza kalibratzen. Baliteke belaunaldi edo aldi jakin horren ostean abandonu-garaia etorri izana, edo kokapena ahaztu izana, harik eta berriro aurkitu artean. Era berean, pentsatu behar dugu okupaziorik intentsiboenak eta egonkorrenak, dela Madeleine aldiko garai hotzetan, dela Azil aldiko hobekuntzekin, aire zabaleko guneetan izango zirela, eta Ekaingo leizeak eta tankerako tokiak -aztarnategiari dagokionez- fenomeno «anekdotiko» samarrak izango zirela.

Zaila da talde horien lurralde-mugimenduen zantzuak ateratzea; halere, hainbat arrastoren bidez, egin dezakegu gerturatzerik. Lehengai silizeoek eta haien jatorriaren ezaugarriak ateratzeak ematen dizkigute errazen jarraitzeko moduko ebidentziak (15. irudia). Ekainen kasuan, taldeok, nahiz eta Flyscheko kostako azaleratzeetara jotzen duten, hegoaldeko lurraldeetatik ere hartzen dute hornidurarik (Urbasa eta Trebiñu, kasu), baita Pirinioen iparraldeko eremuetatik ere (Chalosse eta Salies). Horrez gain, badira beste elementu batzuk ere, mugikortasun horren edo talde zein lurraldeen arteko harremanen berri ematen digutenak; esate baterako, DNAren eta isotopo egonkorren analisiak, labar-arteetan edo arte higigarrian ageri diren konbentzio edo motibo artistikoen hedadura-maila, hezur- edo harrizko fosil-gidariak eta abar.

Hala eta guztiz ere, zaila da aztarnategiak elkarrekin lotzea, oso erregistro partziala baitugu. Alde batetik, Holozenoko hobekuntza klimatikoarekin, nabarmen igo zen itsas maila, eta urpean utzi zituen kostaldeko aztarnategi ugari; horren ondorioz, talde asko beharturik egon ziren barrurago zeuden lurrak okupatzera. Horrek azalduko luke, konparazio batera, moluskuen eta itsas kuskubikoen ekarpen-hazkunde handia leizeetara, III. mailako Azil alditik aurrera. Bestetik, kronologia horren bueltan induske-



15. irudia. Mapa honetan irudikatzen diren isokosten bidez, adierazten da zer ahalegin metatu eskatzen zuten Ekaindik suharri-azalera-azalera egindako joan-etorriek (aztarnategian identifikatutako moten arabera). Kostu-unitate bakoitzak zera adierazten du, pertsona batek zer distantzia egin zezakeen ordubetea, zero maldako lurrazal batean (egile hauen lanen ildo beretik: García-Rojas et al., 2017; Prieto et al., 2016; eta Sánchez et al., 2016).

tak egindako aztarnategi gehienak leize-okupazioak dira, eta, aldiz, ez daukagu aire zabaleko okupazioen erregistro on bat -eta, ziurrenik, haiek izango ziren ohikoenak-. Gure lurraldearen okupazio handiaren eta aldaketaren ondorioz, eta halako aztarnategiak bilatzeko prospekzioak egiteko konplexutasuna ikusirik, ikuspegi partziala eta desitxuratua dugu, une haietako lur-okupazio eta -artikulazio errealari buruz.

Aztarnategiaren funtzionalitateari buruz jorratu beharreko beste alderdi bat zera litzateke, ehizarako geldialdi horiek zer erlazio duten barrualdeko pinturekin eta grabatuekin. J. Altunak (Altuna eta Merino, 1984) baztertu egin zuen ehizatutako eta irudikatutako faunaren arteko kidetze posiblea, eta bistaratu egin zuen, lehen esan bezala, barrualdeko irudikapenen eta leizearen sarreran okupatutako tokiaren arteko banaketa. Ekaingo VI. mailako Madeleine aldiko plaketari eta apaindutako tankerako elementuei erreparatzen baldin badiegu (arrankaziak, puntak eta azagaiak, eta abar), begien bistakoa da adierazpen artistiko horiek ez zirela mugatzen leizearen barrura bakarrik. Aztarnategian produkzio artistikoarekin nolabaiteko lotura duten elementuak ageri direla ikusita (zulakaitzak, okre-zatiak eta abar), ezin dezakegu baztertu -baina ezta baieztatu ere- bestelako adierazpen artistikorik izango zenik, beste nolabaiteko euskarri galkor organikoen gainean.

Laburbilduz, gero eta nabarmenagoa egiten zaigu gizarteon konplexutasuna. Aztarnategi berriak topatzeak -edo ezagutzen ditugunak berriro ere industeak-, material zaharrak berriro aztertzeak eta azterketa-teknika berriak ezartzeak datu gehiago emango dizkigu, eta leiho berriak irekiko ditu, populazio haien eguneroko martxaren alderdiak ezagut ditzagun. Hezur- edo harri-industrien analisisien barruko berrikuntzez gain (petrologia, geokimika eta abar), nabarmentzekoak lirateke beren potentzialtasunagatik, beste hainbat eta hainbaten artean, honako hauek: paleogenomikoa, leinu genetikoak eta lurraldeetan egindako hedapenak ezagutzeko; isotopo egonkorak, giza eta animalia mugikortasunaren ezaugarriak, kontsumitutako elikagaienak eta

halakoak eskuratzeko; hondakinen analisiak eta trazeologia, era guztietako objektuen funtzionalitateak zehazteko; edo Informazio Geografikoko Sistemak, besteak beste, lurraldearen kudeaketa makroespaziala egiteko edo aztarnategiaren antolaketa mikroespaziala gauzatzeko...

Ekain ez dago aldenduta berrikuntza horietatik guztietatik. Ikusirik aztarnategiak zer-nolako potentzialitatea duen –aski ezaguna, inondik ere–, tankera horretako berrikuntzak eta bestelako berriagoak ezartzen goazen heinean, are eta etekin handiagoa aterako diegu berreskuratuta dauzkagun ebidentzia arkeologiko guztiei. Horrek guztiak ehiztari- eta biltzaile-taldeak hobeto ulertzen lagunduko digu, hain zuzen ere, leizea modu nahiko ohikoan baliatu zuten aldetik, ehizarako geldiene gisa, eta sakondu ahal izango dugu zer-nolako aldaketak izango dituzten Holozenoko hobekuntza klimatikoarekin. Aldaketa hori bat etorriko da, adibidez, leizearen barrualdean ikusten dugun labar-arteak –eta arte higigarria– sortzeari uzten dioten garaiarekin.

Hemen fabrikatu, erabili eta bota zituzten erremintak dira iritsi zaizkigun aztarna apurrak. Haien bidez lor dezakegu denboraren bidean atzerantz egitea, eta, hala, talde haien eguneroko bizimodua berreraikitzea: haien mugikortasuna eta lurraldearen kudeaketa, estrategia sozioekonomikoak eta abar. Hori dela eta, ezin dugu Ekaingo irudikapen zoragarriak ulertzen saiatu, ez badugu kontuan hartzen multzo oso baten zati direla. Hain zuzen ere, leizeak bisitatu zituzten ehiztarien eta biltzaileen talde haien beste alderdi bat gehiago dira, zeinak hainbat eratako xede artistikoekin eta ekonomikoekin inguratu bide baitziren. Izan ere, leizeari esker, hobeto aprobetxatuko zituzten inguruko mendi-, ibai- eta itsaso-inguruneak (maila desberdinetan, urte-saso batetik bestera). Halaxe elkartuko zituzten ehiza eta arrantza, fruituen, fruitu lehorren, tuberkuluen eta tankerakoen bilketa, baita itsasoko bitartekoak lortzea eta kontsumitzea ere. Hori hala, xede are handinahitsuago bat lortzeko bidea dugu industria litikoen azterketa: gizarteon eguneroko martxa berreraikitzea, alegia.

05

Margoak eta kobazuloa

“La qualité des peintures d’Ekain situe cette grotte dans ce que H. Breuil nommait les “geants”, du niveau d’Altamira, Niaux ou Lascaux. L’ensemble de chevaux le plus parfait de tout l’art quaternaire figure avec une ampleur presque théâtrale dans les trois panneaux principaux. Par sa disposition figurative, c’est également un des exemples les plus clairs.”

André Leroi-Gourhan 1971





Joxe Mígel Barandiaran Ekaingo zaldiei buruzko azalpenak ematen. Jose Luis Ibisate, 1979.
AZEA. Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxiboa.

Ekain izeneko muinora iritsi gara, Beliosoro eta Goltzibar errekek bat egin eta Sastarrain erreka sortzen den gunetik oso gertu gaude, gure aurrean haran estu bat dugu. Muino horren oinean, basotxo batek ezkutaturik, burdin-hesi bat ikusi daiteke.


Burdin-hesi horrek Ekain 1 deituriko kobazuloa babesten du, zazpi kobazulok osaturiko multzo kartiskoko haitzuloetako bat, mundu mailako labar arte multzorik ederrenetako eta garrantzitsuenetako bat gordetzen duena.

Sarrerak arku beheratu baten itxura du, indusketa arkeologikoaren aurretik 1,20 metro inguruko altuera eta oinarrian 2,30 metro inguruko zabalera dituena. Hemen aurkitu dira Ekainen Goi Paleolitoan bizi izandako gizakien aztarnak, tresnak, jandako animalien hezurak, suzuloak...

Bertatik bi galeria sortzen dira, ezkerrera daramanak oso garapen laburra du, eskuinera daramana milaka urtez harri jausi bategen estalita egon da, honek gidatuko gaitu kobazuloaren barnera.








EKAIN

Kobazuloaren oinplanta




15 metro inguruko luzera duen tunel estu eta baxu batean sartu gara, ia lau hanketan. Kobazuloaren alderdi hau nolabaiteko tenplu edo santutegi kontsideratzen da, egunerokotasunetik kanpoko jarduerentzat espazio bat. Agian tunelean marrazkiak egongo ziren, baina milaka urtetan zehar bertatik gizakiak eta hartzak pasa dira eta egon zitezkeen irudiak ezabatu egin dira.

Erdibide edo *Erdialde* deituriko galerian gaude, lasai zutitu gaitezke. Gure linternen argiek areto zabala argitu dute eta bertan estalagmita multzo bat eta forma berezia duen harkaitza ikusten dira, baina aurretik, gure ezkererantz, harri mutur batek ezkutatzen duen sabai baxuan, zerbait ikusten da.

Auntzei galeriaren sarrerara iritsi gara, bertan dago kobazuloko lehen irudia, sabai oso baxua da eta makurtu egin behar dugu bera ikusteko. Manganeso dioxidoz margoturiko zaldi buru beltz bat da, tamaina handikoa. Hiru berezitasun azpimarratu ditzakegu margo honi buruz: kobazuloan sartu eta aurkitzen den lehen irudia da, gainontzeko margoekin konparatuta handia da eta margotzeko Ekainen arraroa den materiala erabili dute, manganeso dioxidoa.

***Atal honetan agertzen diren
argazkiak Ekaingo jatorrizko kobaren
argazkiak dira, Eusko Jaurlaritzaren
Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailaren jabegoa dutenak.***

EGILEA: JAN WESBUER.




Zaldi buru beltza.

Galeria estu eta nahiko baxua da *Auntzei*. Ezkerreko horman aurkitzen da Ekain-go izokin ospetsua, ikatzarekin margotu dute, sabeleko azalaren eta bizkarrekoaren arteko kolore desberdintasuna marra beltz batekin markatu diote eta badirudi begia egiteko harriaren forma erabili zutela.



Izokina.

Ezker horma horrek bi orein zizelaturen irudiak ere gordetzen ditu, bata arra eta bestea emea. Ildo oso finez marraztuak daude, suharrizko zulakaitz bat erabiliz, oso erraza da beraien aurretik ohartu gabe pasatzea. Ekaingo gizakiak orein ehiztariak ziren arren, animalia hau arraroa da bertako irudietan, hori bai, Ekainen arra eta emea segurtasunez bereizi dezakegun espezie bakarra da.




Orein grabatuak.



Ezker horma horretan bertan bi ahuntz beltz eta zenbait marra beltz ere aurki daitezke. Eskuineko horman hirugarren ahuntz baten margoa dago, baita zeinu beltz gehiago ere.

Erdibide edo *Erdialdera* itzuli gara, linterna argitan ikusi dugun harkaitz berezi horren bila goaz, aurrean estalagmita multzo bat du. *Zaldi Buru Harkaitza* da eta Ekainen hainbeste zaldi margotu izanaren arrazoia izan daiteke. Forma erabat naturala du, posible da sudur-zuloak gizakiak landu izana. Agian, sudur-zuloak lantzeaz aparte, gizakiek ikatzarekin harkaitzaren leku desberdinetan bi zaldi buru, zenbait marra eta zeinu eta bi bisonte margotu zituzten.



Ahuntzaren burua eta marra beltza.



Ahuntza osoa.





Zaldi buru harkaitza, aurrean
estalagmita handia duena.



Zaldi *Buru* Harkaitzeko bisontetako batek Zaldei galeriarako sarrera markatzen du. Oso berezia da konkorra eta isatsaren parte bat egiteko harriaren formak aprobetxatu dituztelako. Labar artean oso ohikoa da irudiak osatzeko harrien forma erabiltzea, efektu ikusgarriak sortuz.




Goian, bertikalean marraztutako bisontea. Behean, konkorra eta isatsa egiteko harriaren forma hartzen duen bisontearen margoa.

Ezkerreko aldera begira jarriko gara, *Panel Txikia* dugu aurrean, ikatzez margoturiko bisonte batek, zazpi zaldi beltzek eta zeinu gorri batek osaturiko multzoa. Sarrerako bisontearen konkorra denborarekin ezabatu egin da, kokotsa ere ez da argi ikusten, bizkarraren hasiera eta amaiera harriaren formak aprobeztatuz egina dago.



Panel Txikiaren erdian sei zaldi daude, hiru osorik eta beste hiruren buruak, lauk kobazuloaren erdigunera begiratzen dute eta bik kanpo aldera.

Erdiko bi zaldi osoek gorputzean zehar marra luzeak dituzte margotuta, batek bihotzaren inguruan puntu gorri bat ere bai. Lantza bezala interpretatzen diren marra horiek magia sinpatikoa deitzen den ehiza erri-tual batekin lotura izan dezakete.





Orein emearen profila.


Panel Handia Ekaingo irudirik ezagunena da, André Leroi-Gourhan arkeologoaren hitzetan “zaldi multzorik perfektuena Kuaternarioko arte osoan zehar”. Irudiak ikusteko posiziorik onena lurreko harri bloke handien gainean etzatea da.

Paneleko irudi guztiak ez dira zaldiak ordea, gure eskuinean, 1,40 zentimetro inguruko altueran, orein eme baten profila ikusi daiteke, beltzez margotua. Kokotsa eta atzeko zangoak falta zaizkio.









Goian, bisonte bikromoa. Ezkerrean, beltzez profilatutako bisonteetako bat. Eskuinean, gaur egungo bisonte europarra (*Bison bonasus*).

Ondoren bisonte multzo bat dago, bi ikusten dira argi eta garbi, baina guztira lau dira, hiru beltz eta bikromo bat. Bisonte bikromoak burua oso ongi markatua du, atzeko zangoak falta zaizkio, behean duen zaldia errespetatuz.



Baina nagusia zaldia da, denera hamabi daude, gehienak osoak. Hiruk ez beste guztiek kobazuloaren sakonera begiratzen dute, gure eskuinerantz.



Bi zaldi bikromoak. Marraztutako zaldi hauek gaur egungo zaldi basatiaren tankera hartzen dute, Przewalski zaldiarena.

Bi zaldi bikromoek erakartzen dute ikuslearen arreta, profila eta barruko zenbait xehetasun ikatzez margotuta dituzte, barrutik okre gorriaren tonalitate desberdinak erabiliz.

Gure eskuinekoan ilajearen kolore desberdintasuna eta belaun eta apatxen xehetasuna aipatu behar dira. Gure ezkerrekoan muturra azpimarratu dute, belarria, begia, sudur-zuloa eta ahoa marraztuz.



Kobazuloaren alderdirik sakonenera iritsi gara, Artzei edo Hartzei galeriara, bertako sabaian ditugu Ekaingo hartz arreak, 1,20 metroko altura duen sabai batean eta kobazuloako estalaktika eta estalagmita multzorik politenetako baten ondoan.



Agian ama-umeak dira, ama behintzat bururik gabe marraztua, edo agian harriaren forma erabiliz egin diote burua. Haitzuloaren bihotzean margotu dituzte, manganeso dioxidoarekin, Ekaingo margoetan ezohiko materiala, eta kasualitate hutsa izan daiteke, baina kobazuloko zaldi gehienek bertarantz begiratzen dute.



Ekaingo hartz emea
eta bere kumea.

Azkenaldei dugu kobazuloko azken galeria apaindua, oso sabai baxua du eta makurtuta sartu behar da bertara, bandera batzuk ematen digute ongi etorria, zoruan, galeriaren erdian, harri mutur handia dago.

Zazpi zaldi margotu, zeinu gorri bat eta lantza edo gezi bezala interpretatu izan diren zenbait lerro zizelatu aurkitzen ditugu, batzuk harriaren txokoak baliatuz eginak. Zaldi guztiek gure eskuinerantz begiratzen dute, hartzak dauden galeriarantz. Gorriak eta beltzak dira, aurrekoak baino sinpleagoak. Sabela eta atzealdea oso desproporzionatuak direnez, ernari dauden behorrak bezala interpretatu izan dira eta ugalkortasun erritual batekin lotu.

Animalietako batek goiko partean hainbat lerro zizelatu ditu eta beste bi bihotzaren parean, ehizatua izaten ari den animalia adierazi dezake.





Azkenzalde galeriako bi zaldi osatuak.


06

Labar-artea eta haren testuingurua

“Archaeological materials are not mute. They speak their own language. And they need to be used for the great source they are to help unravel the spirituality of those of our ancestors who predate the Indo-Europeans by many thousands of years.”

Marija Gimbutas, 1921-1994





D-Stretch bidez tratatutako Ekaingo irudiaren detailea.
Blanca Ochoa, Irene Vigiola, Marcos García-Díez.

Blanca Ochoa

Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila, UPV/EHU

inolako zalantzarik gabe, Ekaingo leizea da Kantauri eremuko multzorik garrantzitsuenetako bat. Horren arrazoiak hainbat dira: erabilitako teknikak, irudikatutako gaiak, irudikapeneterako baliatutako estiloa eta kronologia. Labur-labur aztertuko dugu alderdi horietako bakoitza, multzo horrek arte paleolitiko kantauriarrean duen garrantzia nabarmentzeko.

Ekaingo leizean baliatutako teknikak askotarikoak dira, Goi Paleolitikoaren amaiera aldeko gizarteen artearen isla: inguramendu-marraski soilak edota hiru teknika motaren konbinazioak -marraskia, grabatua eta pintura-. Ekaingo leizeko artistek euskarri mota desberdinetara egokitu zuten teknika, bai eta leizeko gunee batera eta bestera ere, ziurrenik, arte horrek betetzen zuen funtzioa oinarri hartuta.

Paleolitiko garaiko artearen teknikarik ohikoenak marraskia edo inguramendu-grabatua dira. Ekaingo leizean, teknika horiek topatzen ditugu; halere, haien konbinazioa ere ageri da irudi bakarrean -horren ohikoa ez bada ere-. Zaldien paneletan, inguramendu-marraskia eta pinturaz eginiko betelana uztartu ziren, aldakuntzak eraginez animaliaaren ilajea. Azkenik, ingurua nabarmentzeko, hainbat trazu bakun baliatuta grabatzen zuten (0. irudia).

Koloratzailea aplikatzeko garaian, artistak pigmentuzko arkatz edo bloke bat erabiltzen zuten, segun eta zer kolore irudikatu nahi zuten (1. irudia). Beltza lortzeko, ikatz-ziri bat, erretako egur-adar bat edo manganesozko koloratzaile-bloke inorganiko bat baliatzen zuten. Ekaingo gainerako kolore sorta irudikatzeko, jatorri inorganikoko pigmentuak baliatzen zituzten, zeinak leizearen ingurumarietako naturan topa baititzakegu. Okre koloreak hematiteetatik eskuratuak dira, eta, segun eta zer mineral



0. irudia. (Panel nagusiaren xehetasuna)- Second Canvas pantaila-argazkia Tekniken xehetasuna: Beltzez, ingura mendu-marrazki sinplea; barrualdea okre gorritz margotuta dago, eta ingurua, berriz, grabatuta, buruan ikusten den moduan, barailezuraren eta lepoaren artean. Eusko Jaur-laritz.

zituzten, kolore gorriak, horiak edo siena eman zitzaketen, baita purpura ere.

Grabatuari dagokionez, ohikoena zera da, erreminta litiko bat baliatzea V erako ildo bat sortzeko. Egindako presioaren bidez, sakonera aldatzen da, eta haren gainean pasatutako aldien kopuruak mugatzen du zabalera. Ekaingo kasuan, ildoak eskuarki fina eta azalekoa da (2. irudia), nahiz eta egileek «grabatu anizkuna» izeneko modua baliatu zuten: grabatu finak eta azalekoak egiten zituzten banda zabalago batean, euskarriaren kolorea aldatzeko (0. irudia).



1. irudia. Bisonte baten irudia, inguramendu-marrazki bidez trazatua. Blanca Ochoa.



2. irudia. Orein baten irudia, trazu sinplez grabatua, Auntzei galerian. Blanca Ochoa.

